SAKANAKO ASTEKARIA • 2015eko ilbeltzak 23, ostirala • 2. aroa • 493. zenbakia

GUAIXE.EUS

PRES TOKIKOM

Korrika 19, parte hartzeko gonbitea



Sakanerria >> 9

Irakurle taldeen hitzorduak: ostegunean, 19:00etan, Etxarriko liburutegian eta ostiralean, 21:00etan Olatzagutikoan

Kultura >> 15

Kriseilu islamiarra opatu dute Olaztin

>>3

Irurtzungo aurrekontu parte - hartzaileak martxan

>>7

Aralar, Kontserbazio Bereziko Eremu izendatuta

>>6

Urtebetean 131 langabe gutxiago daude Sakanan

>>8

Jose Inazio "Axio" Floresen bizitzari buruzko dokumentala egingo da. Ekimena finantzatzeko bideetako bat crowfundinga da (www.karena.eu).

Bizia dokumentalera

>>9

C hepatitisa, borroka osasun eskubidearen alde

>>5

Plana gogoan, alkateak Gobernuari bilera eske

>>5



Ipar eski ibilaldia igandean Urbasan

>>13

ZORION agurrak

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingresatuta egin daiteke.

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

Beñat Gomez
Urtarrilaren 27an, 8 urte. Zure zenbaki faboritoa! Hau suertea!
ZORIONAK, prezioso!

Uxuri Fortuna Anso
ZORIONAK koxita!! Jada urte bat, nola pasatzen den denbora!! Asko maite zaitugu, zure familia osoaren partez.

Miren
ZORIONAK MIREN! Jadanik 5 urte!! Muxu potolo asko Jon, aita eta amaren partez

Aitor Igoa Reparaz
ZORIONAK Aitor! ya 5 urte, fameliyan partez.

ilbeltzak 23-29

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Sacalfi eta Trasteando. Lastailaren 24an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Antzerkia

Tres árboles de piedra. Ilbeltzaren 25ean, igandean, 19:00etan Irurtzungo kultur etxean. **Producciones Maestras.**

Magia

Cruzando el espejo. Ilbeltzaren 24an, larunbatean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Pedro III.a Ilusionista.**

Ipuin kontalaria

Ipuin kontalaria. Ilbeltzaren 29an, ostegunean, 17:00etan Etxarri Aranazko liburutegian. **3 urtetik gorakoendako.**

Zinema

El pasado. Ilbeltzaren 23an, ostiralean, 21:45ean eta ilbeltzaren 25ean, domekan, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Jimmy's hall. Ilbeltzaren 23an, ostiralean, 22:00etan eta ilbeltzaren 25ean, domekan, 20:10ean Altsasuko Iortia kultur gunean.

Mortadelo y Filemon. Ilbeltzaren 25ean, domekan, 17:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Magia a la luz de la Luna. Ilbeltzaren 29an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean.

Ikuslearen eguna, 3 euro.

Lasa eta Zabala. Ilbeltzaren 25ean, domekan, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean.

Proiekzioak

2014ko mendi irteerak. Ilbeltzaren 24an, larunbatean, 19:00etan Iortia kultur gunean. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Bizikleta irteerak

Ergoiena. Ilbeltzaren 24an, domekan, 9:00etan Altsasuko Zumalakarregi plazatik. 48 km. **Burunda klubeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Oroitzapenak. Ilbeltzaren 25era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. **Venancio Amillano.**

Ibilbidea. Ilbeltzaren 26tik otsailaren 8ra arte 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. **Angel Antonio Agirre.**

Hitzaldiak

Osasuna eta generoa. Nola islatzen den emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasuna. Ilbeltzaren 23an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Hizlaria: Elena Aldasoro.**

Zer ari da gertatzen Ukrainian? Ilbeltzaren 29an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko gaztetxean. **Askapena.**

Literatura

Etxarriko irakurle taldea. Ilbeltzaren 29an, ostegunean, 19:00etan Etxarri Aranazko liburutegian.

Tailerrak

Euskal dantzak. Ilbeltzaren 24an, larunbatean, arratsaldean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

Bestelakoak

Urte Berri, Asmo Berri. Ilbeltzaren 23an, ostiralean, 19:00etan Etxarri Aranazko plazan. **EHE.**

Euskal Herriko Mus Txapelketa. Ilbeltzaren 24an, larunbatean, 16:00etan Irurtzungo Pikuxar euskal txokoan. **Euskal Herriko Mus Federazioa.**

Euskal Herriko VII. Mus Txapelketa

Kili-Moti (Altsasu) eta Raul-Alvaro (Irañeta) Nafarroako kanporaketara

Euskal Herriko VII. Mus Txapelketa martxan dago. Lehenik eta behin, herrietako kanporaketak jokatuko dira, otsailaren 21ean herrialdeko finalak eta azkenik, martxoaren 7an jokatuko da final handia, Lekeition. Aurreko larunbatean Altsasuko kanporaketa eta Irañetakoa jokatu ziren. Altsasuko Zubi Ondon, Kili eta Moti izan ziren Altsasuko txapeldunak eta beraiek sailkatu dira Nafarroako herrialdeko kanporaketarako, Juanjo eta Angeli finalean irabazi eta gero. Hirugarrenak Mikel eta Gorka izan ziren. Irañetan, aldiz, Raul Leza eta Alvaro Lakuntza izan ziren txapeldunak eta eurek ordezkatuko dute Irañeta Nafarroako kanporaketan. Nafarroako kanporaketa otsailaren 21ean jokatuko da, Bullizio eta Arrano elkarteetan, goizeko 9:00etatik aurrera.

Asteburuan Irurtzunen eta Arbizun

Bihar, ilbeltzaren 24an, larunbatean, Irurtzungo kanporaketa jokatuko da, 16:00etan Pikuxar euskal txokoan. Etzi, igandean, Arbizukoa jokatuko da, 16:00etan, Karrika tabernan. Bestalde, Lakuntzako kanporaketa Sorginak tabernak hartuko du, ilbeltzaren 31n, 17:00etan.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Ilbeltzaren 23an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Ilbeltzaren 25ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

ezkaatza >>

» Olatzagutia

Kriseilu islamiarra Olatzagutian

Ezpilleta elkarteak lurrez egindako kriseilu islamiar baten aurkikuntzaren berri eman du

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza

Carlos Sergio olaztiarrak herrian opatu eta Ezpilleta historia eta arkeologia elkarteak islama iberiar penintsulan egon zen garaiko kriseilu bat ezagutzera eman du. Balio handiko pieza bat da, islamiarrak VIII. mendean penintsulan izan zireneko hutsune arkeologikoa oso handia baita. Gainera, Mikel Markotegi Ezpilleta elkarteko presidentearen arabera, aurkikuntza honek historiografia espainiarrak kontatu izan duena ezbaian jartzen du: "betidanik kontatu izan zaigu islama bisigodoek geratu zutela iparraldean, Asturias inguruan, Covadongako birjinaren laguntzarekin. Bada, islamiarren aztarna bat hemen aurkitzeak zera erakusten digu, hauek hemendik ere igaro zirela, ez zituztela Asturiasen gelditu. Islamiarrak benetan Carlos Martel frankoak kanporatu zituen, Poatiers Tours-en, hain zuzen. Beraz, penintsula guztia igaro eta Frantzian barneratzera iritsi ziren".

Kriseilu horretaz landa, Iruñeko Gaztelu plazan dagoen maqbara musulmana -hilerri baten antzekoa dena- ere Islama Nafarroan izan zenaren erakusle da. Isotopo egonkorren bitartez eginiko azterketa baten bidez jakin da hilerri horretan zegoen jende gehiena bereberra zela. Haiek ziurrenik Olazti inguruan kokatu ziren, eta hori ongi erakusten du aipatutako kriseilu islamiar horrek. Gainera, Markotegiren esanetan, kriseilu bat aurkitzeak bereberrak bertan bizitzen egon zirela erakusten du, berau etxeko tresna bat kontsidera baitaiteke.

Kriseilua lurrez egina dago eta Olaztin opatu dute. UTZITAKOA

Baimen ofizialaren zain

Ezpilleta elkartea joan den urteko maiatzean sortu zen. Lehenago elkarteko kide batzuk euren kabuz ibiltzen ziren, baina pentsatu zuten elkarte bat eratuta segurtasun juridiko handiagoa izango zutela. Gaur egun, elkarte honen eginbehar nagusia Sakanan prospekzioak egitea da. Haatik, lan hau burutzeko ez daukate nahiko luketen askatasun guztia, oraindik ez baitaukate prospekzioak egiteko baimen ofizialik. Eskaera abenduan egin zuten, eta lortzekotan baimena 2015 guztirako izanen lukete.

Elkarteko lehendakariak garbi dauka baimen hau lortzeak lana asko erraztuko liekeela: "Baimen horrekin, adibidez, Urbasako mendi zerran batetik bestera nahi bezala ibili zaitezke. Baimenik gabe bazabiltza, ordea, 600 eta 3.000 euro arteko isun bat jarri diezazukete. Andia eremu oso zabala da, eta autoz batetik bestera ezin bazara ibili, guztiz mugatuta zaude. Leku guztietara oinez joatea zorakeria da. Guk behar duguna da bilaketa tokira autoz joan eta berehala lanean hastea, denborarik galdu gabe. Hortaz landa, baimena izanda diru-laguntza eta bestelakoak lortzeko aukera daukazu".

» Altsasu

Parkinsona gogoan izateko zuhaitzak

50 zuhaitz landatu dituzte Dantzalekun, parkinson gaixotasunaren inguruan gizartea sentsibilizatzeko eta gaixo asko bizi diren isolamenduarekin apurtzeko.

Parkinson gaixo asko daude Sakanan. "Gaixoen datuen babesa sekretupean dagoenez, jakin dezakegun entzundakoaren araberakoa izan ohi da, baina 100 baino Parkinson gaixo gehiago egongo dira Sakanan" adierazi digu Nafarroako Parkinson elkarteko kide Kontxi Mendiluze altsasuarrak. Parkinson gaitza gizarteratzeko, patologiaren inguruan gizartea sentsibilizatzeko eta gaixo asko bizi diren isolamendu egoerarekin apurtzeko *Zuhaitz bat Parkinsonarengatik* kanpaina martxan jarri dute, eta Altsasuko Dantzalekun 50 zuhaitz landatu zituzten ostiral goizean. Ekitaldia Nafarroako Parkinson Elkarteak (ANAPAR) eta Altsasuko Udalak antolatu zuten.

Dantzalekuko Parkinsonaren aldeko zuhaitz landaketan Nafarroako Parkinson Elkarteko lehendakari Begoña Gomez eta koordinatzaile Sara Diez de Cerio izan ziren, Sakanako elkarteko kide eta gaixoekin batera. Altsasuko alkate Garazi Urrestarazuk ongi etorria eman zien, eta Enrike Zelaia musikari altsasuarrak, Amaia San Migel pandero joleraren laguntzaz giroa goxatu zuen, akordeoiaren laguntzaz. "Zuhaitzak gaixoa irudikatzen du, zailtasun eta traba guztien gainetik altxatzen dena, bizirik dagoena" adierazi zuten elkartekoek. Ondoren, landaketari ekin zioten. Guztira 50 zuhaitz landatu zituzten.

Parkinsona

Parkinsona gaitz neurodegeneratiboa da. Gutxinaka eguneroko gauzak egiteko arazoak dituzte gaixoek, eta menpeko pertsonak bihurtzera iristen dira. Nafarroan egun 2.243 gaixo daude, 100 baino gehiago Sakanan. Esaterako, Altsasun 43 gaixo daude, Etxarrin 22 eta Irurtzunen 41. Gaixotasuna isilean eta etxeko lau pareten barruan ez bizitzeko gonbitea egin diete Nafarraoako Parkinson Elkarteko ordezkariek gaixoei. "Elkartera hurbildu daitezela, gaixoen bizitza errazten duten ekintzak, ikastaroak eta beste antolatzen baititugu. Atera daitezela kalera, herrian bizia egin dezatela eta naturaz goza dezatela. Hori lortu nahi dugu ere zuhaitz landaketarekin" gaineratu zuten.

Enrike Zelaiaren emanaldiaren ondoren hasi ziren zuhaitzak landatzen.

SAKANA

Dozena erdi auzo-konpostagailu berri

Aurretik zeudenak txiki gelditzen zirelako ordezkatu dituzte

Urte bukaeran Sakanako Mankomunitateak sei auzo konpostagailu berri jarri ditu. Ibarreko erakundean jakinarazi digutenez, herri horietan orain arte 800 litroko plastiko berdeko hainbat ontzi erabiltzen ziren auzo konpostagailu gisa. "Baina txiki gelditzen ziren eta joan den urteko inbertsioen atalean zegoen dirua horra bideratzea erabaki genuen". Plastikozko auzo-konpostagailu eredu berria jarri dute: bana Uharte Arakilen, Arbizun, Lizarragan eta Olatzagutian eta bi Urdiainen. Etxarri Aranatzen bat ordezkatzeko gelditu litzateke. Auzo-konpostagailu horiekin batera, Irurtzunerako zortzi eta Altsasurako bi erosi ditu Mankek, 16 guztira.

astekoa

Lourdes Ganboa Gartziandia

San Saastinak

Las fiestas de mi pueblo. Izenburu hori zuen Coca-Colak antolatutako idazlanen txapelketan aurkeztu nuen erredakzioak.(Akordatzen zarete lehiaketa hau aipatu nizuela lehenengo Asteko-an?) 13-14 urte nituen garai hartan eta beste askok bezala, Iruñeko barnetegi batean nengoen ikasten. Astelehenetik ostiralera, bertatik atera gabe.

Aipatutako festak San Saastinak ziren (horregatik dabilkit buruan kontu hau egun hauetan). "Erbesteratua" egoteak ematen zidan lizentziarekin, erromeria idiliko eta erromantikoa deskribatzen nuen: San Saastin ermitarako bidean gurdi handi batean jende piloa, hizketan, abesten... Imajinatzen dut nire burua idazten nuen bitartean, negu hotzean, oraindik hotzagoa zen "etxe" handi hartan. Seguru pentsatzen nuela zeinen ongi egongo ziren Lakuntzan bizi zirenak. Triste, ziur aski. Zenbat botatzen nituen nik faltan nire familia eta herria ikastetxe hartan! Ze inbidia, astelehenetan, Burundesaren zain nengoela, "Copeleche"-rako esnea ateratzen zutenak, berehala etxera bueltatuz (Agian haiei nik ematen nien inbidia, holaxekoa baita bizitza). Nik uste dut horregatik izango nuela nik gustuko idazlanak egitea: nire irudimenez, bidaiatu egiten nuen goxotasun bila herrira edota beste inora ere.

Baina herriminak bultzatua edo, erredakzioa polita atera omen zitzaidan eta gustuko izan zuen irakasleak. Horrexegatik hautatu zuen txapelketarako.

barrutik kanpora

Olatu leku

Azken hilabeetan Sakantzen Sareak soinu askorik atera ez arren, kameren atzean lanean ibili gara. Gero eta gehiago dira Sakanako prozesuan zein gure emaitzetan interesa jarri duten udal eta eskualdeak. Irailetik hona, Madrilen, Bartzelonan, Iruñan, Sopelan, Arratia bailaran eta Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza fakultatean izan gara egindako lana aurkezten.

Sopelako hitzaldian Olatu Leku esperientzia ezagutu genuen. Olatu Leku Angelun kokatzen da eta Ohol gaineko kirolen (surf, skate, snowboard, eta abar) enpresa inkubategia da. Bertan, 40 marka kokatzen dira eta horietatik 8, munduko marka liderrak dira. Enpresa hauen negozio bolumena 1,2 milloi -koa da. Eta hau dena, 50 kilometroko eremuan. Espazio honen gestioa Estia Entreprendrek darama 2012 urteaz geroztik.

Bertako enpresa gehienak ohol gaineko kirol moda eta osagarrietan lan egiten dute batik bat. Bestalde, nazioarteko enpresa hauen bertaratzeak, bertako pertsonek negozio berriak sortzea ekarri du. Adibidez, diseinu eta sorkuntza enpresak eratu dira, marketing eta komunikazioa eskaintzen dutenak, baita zerbitzu teknikoa eskaintzen duten enpresak ere.

Espazio honek, Angelun ohol gaineko kirolen inguruan ekosistema enpresarial eta kultural txiki bat sortzea ekarri du. Angelu munduko surflari, skate zale edota snowboardlari onenen topaleku bihurtu da. Pertsona eta enpresen arteko elkarlanetik produktuen kalitatearen hobekuntzan lanean dabiltza. Enpresek munduko kirolari onenekin probatzen dituzte beraien produktuak eta kirolariek, beraientzat lagungarriak izan daitezken produktuak sortzen laguntzen dute. Beste zeinu argi bat, elkarlanak produktuen balioa handitzeko balio duela.

Zer egin dezakegu guk esperientzia hau Sakanara hurbiltzeko? Zein arlotan sortu dezakegu guk errendimendu altuko horrelako enpresa inkubategi bat? Eskaladan izan daiteke? Mendiko txirrindulan? Ea etorkizunak zer pairatzen digun.

Urte berri on!

Sakantzen Sarea

hara zer dien

Noiz ezgaitu Alzheimerra duen gaixoa?

Alzheimerra duen gaixoak oroimena eta beste gaitasun batzuk galtzen ditu pixkana-pixkana. Egunerokoan, ziurtasun eza ekar diezaioke horrek: sua piztuta utzi, kalean dabilela galdu, botikak behar bezala ez hartu... Agian, ez du dirua ongi kontrolatzen; dirutzak atera ditzake banketxetik; behar ez dituen gauzak erosi edo, apika, zenbaitek aiseago engainatzen ahal du.

Eriaren interesak babesteko, beste pertsona batzuk hartu beharko dute haren gaineko ardura. Hori behar den bezala egiteko, legezko ezgaitasuna deklaratu behar da, aldez aurretik. Ondoren, gaixoaren egoera administratzeko eta haren interesak zaintzeko legezko tutorea izendatuko da.

Josefina Arregui Klinikan jabetzen gara erabaki hori hartzea zaila dela familiarentzat, baina egokiena dela ikusten dutela. Maiz galdetzen dute nola egin hau gure aitari edo amari? Ezgaitasunari buruzko erabakia epaile batek hartuko du. Gaur egun Alzheimerraren diagnostikoa gero eta goizago egiten da, eta ezgaitasunak ez du eraginik izanen gaixoak behar dituen alorretan baino. Beraz, eritasunaren bilakaeraren ondorioz gaixoak zer gaitasun galtzen duen, hartara egokituko da ezgaitasuna. Gainera, gaitasun batzuk berreskura daitezke, berriz ere.

Daitekeena da gaixoak berak eskatzea aurretiazko borondateen agiria egitean, gerta dakiokeena aurreikusita. Maiz gauzatzen ez bada ere, familiak lasaitu ederra hartzen du horrelakoetan. Eriak berak eskatzen ez badu, eska dezakete familiakoek, sendagileek, gizarte langileek eta, zenbaitetan, auzokoek ere, baldin uste badute pertsona batek babesa behar duela gaitasun kognitiboak galtzen hasia dagoelako.

Josefina Arregi klinika

objektibo tik

Elurra!: Iritsi da askok horrenbeste espero zuten elurra. Irudi politak utzi ditu, baina baita ohiko trabak ere. Errepideak garbi mantentzeko makinak lanean daude, baina gogoratu norberaren etxeko atea norberak garbitu behar duela.

objektibo tik: gutunak@guaixe.net

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.net
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitz Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILEA: Maria Luisa Zelaia Mendia
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.net

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK

Mank sakana

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza

sakanerria >>

SAKANA

Ekonomia garapena helburu, alkateek Nafarroako Gobernuari elkarlana eskatu diote

Sakanako Plan Estrategikoa aurrera eramateko "beharrezko diren baldintza eta baliabide ekonomikoen inguruko gaiak adosteko" ibarreko ordezkariekin biltzeko eskatu diote Gobernuari

Sakanako alkateen ordezkaritza batek eta Mank-eko buruak eman zuten ekimenaren berri atzo.

Sakanako alkateek atzo egindako agerraldiaren bidez Nafarroako Gobernuari eskaera zuzena egin diote: "gure ibarrean adostutako ekintzak aurrera eramateko beharrezko diren baldintza eta baliabide ekonomikoen inguruko gaiak adosteko Nafarroako Gobernuari Sakanak horretarako izendatu dituen ordezkariekin bildu dadila eskatzen diogu".

Alkateek gogora ekarri zuten Sakanak bizi duen egoeraren larriak, "gure herri eta eskualdearekiko konpromisoak, legez ez dagozkigun eskumenak, horien artean ekonomia garapenaren sustapena, gure gain hartu eta lantzea ekarri digu". Lanketa horretatik sortu zen Sakanako Plan Estrategikoa. Alkateen iritziz hura garatzeko "ezinbestekoa da Nafarroako Gobernuaren partehartze aktiboa". Eta gogorarazi zuten haren eskumena dela "ekonomia garapenerako aurrera eramateko baliabide eta baldintzak erraztea". Horregatik, "Nafarroako Gobernua elkarlan dinamika honetan sartzea ezinbestekoa da".

Aitortzaren ondoren

Sakanako eragileek azken lau urteetan egindako ibilbideari Nafarroako Parlamentuak hilaren 13an aho batez egindako aitortza eta babesa "oso positibotzat" jo zuten alkateek. "Plan Estrategikoa, orain artekoan bezala, adostasun eta elkarlanari loturik, bide onetik goazenaren beste adierazle bat da".

Aldi berean, gogora ekarri zuten Parlamentuan onartutako mozioan Nafarroako Gobernuari "sakandarrok onartutako plangintza aurrera eramateko beharrezko baliabideak jartzea eta plangintzaren gauzatzean parte aktibo izatea" eskatzen zaiola.

»

Protestak osasunerako esperantza ekartzen duenean

C hepatitisa duten gaixoek botika berriak eri guztiei ematea eskatzeko protestaldiak egiten ari dira. Juan Manuel Adan Gaitanek haien borrokaren zergatia azaldu digu

Adan Iruñeko itxialdian telebistari azalpenak ematen. UTZITAKOA

Botika berri batek C hepatitisa gaitza duten pertsona guztiei osasuntsu bizitzeko aukera zabaldu die. Gaixo zeuden pertsonei botika iristen ez zitzaienez, mobilizazioei ekin zioten. Eta ondorioz gaixoei botika ematen hasi zaizkie. "Pixkanaka mugitzen ari da. Baina ez dakit betirako den edo protestak isilarazteko estrategia. Ahalik eta gaixo gehienengana iristeko lanean segitzen dugu".

Adanek azaldu digunez, "Sovaldi botika ez da enpresa batena. Amerikako Estatu Batuetako (AEB) diru publikoarekin ikerketa egin zuten. Diotenez, ikerketa ostu eta patentatu egin zuten. Enpresaren egoitza paradisu fiskal batean jarri zuten. Enpresa horrek putre funts bati saldu zion eta hura da orain botikaren jabe. Espekulazioa egiteko erosi du, ez jendeari mesede egiteko". Beste botika berriak sortu dira, hau baina hobeagoak, eta urte honetan merkatuan egonen dira. "Haiek AEBn saltzen dituzte baina oso garestiak dira".

Itxialdian, konponbide eske

Hainbat saiakeren ondoren Iruñeko Bideko Ama ospitaleko sindikatuek geletan itxialdia egiten ari dira". Konponbide eske Marta Vera osasun kontseilariari hainbat gutun bidali dizkiote baina ez dizkie erantzun. Eskaera zehatza egin diote Verari: "ahal duen jende gehienari botika ematen jarraituko duela esaten duen konpromiso publikoa hartzeko eskatzen diogu. Gaur egun zirrosia dutenei ematen baitiete soilik. Botika, lehenbailehen, gaixo denei eman behar diete".

Foru administrazioaren jokabidea azaldu digu Adanek: "hasieran esan zuten Madrilen eskumena zela, baina mobilizazioekin Nafarroako Gobernuak bere eskutan hartu du gaia. Botika ematen ari dira. Haiek esaten dute sendagilearen aholkuz ematen direla botikak behar dituztenei. Esaten dute ez dagoela diru faltarik. Baina medikura bazoaz eta diagnostikoa egiten badizu, botika ematen dizu. C hepatitisa dugunoi ez. Diru kontua da".

Adanek argi du: "eurek farmazia enpresekin negoziatu behar dute. Politikoen lana da gaixoei botikak ematea. Horretarako ordaintzen dugu hilero gizarte segurantza. Ez da opari bat". Bitartean, ospitaleko itxialdian sinadurak biltzen ari dira, "gure eskaerak indar gehiago izateko. Verari adierazteko gizarte nafarra gure alde dagoela". Aldi berean, Nafarroako Parlamentuko talde guztiekin biltzeko eskaera egin dugu. Itxialdira etor daitezela eskatu dugu. Jendearengandik elkartasun adierazpen handiak jasotzen dituzte C hepatitisa duten gaixoek.

kaxeta
liburudenda / paperdenda
Zure bertako opari denda
Fax Zerbitzua
Koloretako fotokopiak
Tel.: 948 460 477
Larrañeta 22, ETXARRI-ARANATZ

LARRAZA ARDOAK
Tel.: 948 460 014
Zugarreta 2
Etxarri-Aranatz

BiL TOKi
TABERNA • JATETXEA
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta
Astelehenetik ostiralera
Eguneko menua 8,25€
Asteburuetan
Menu berezia 25€
948 467 876 · Altsasu

IGOA arraindegia
948 460 111 · Arkuetabide kalea · Etxarri Aranatz

» Altsasu / Olatzagutia / Ziordia

Haurtzaroaren babes sarea ehuntzen

Itsasoan buiek ontziei arriskuaz gaztigatzen dieten moduan, haurtzaroa babesteko sarea osatua dute Burunda mendebaldeko hainbat esparrutako profesionalek. Esperientziarekin pozik daude

Abenduan sareko kideak batzarra egin zuten.

Duela hiru urte sortu zen Altsasu, Olatzagutia eta Ziordiko Haurtzaroko Tratu Onen Sustapen Taldea. Gizarte osasuntsua helburu, txikien eta familien ongizateaz arduratzen diren arlo askotako profesionalek osatzen dute taldea. Nork bere esparruan prebentzio lana egiten du. Hala, norbaitek haur edo gazte bat arazoren bat duela sumatzen duenean, taldeari jakinarazten dio eta diziplina arteko ikuspegitik haur, gazte eta familiei eragiten dieten arazoak, konplexuak askotan, bideratzen saiatzen dira.

Orain arteko taldearen martxa Eneka Irizarrek, Burunda mendebaldeko gizarte zerbitzuetako prebentzio teknikari eta sareko koordinatzaileak, eta Gurutze Goikoetxeak, Altsasuko osasun etxeko gizarte langile eta sareko kideak, azaldu digute. Argitu digutenez, arlo ezberdinetako profesionalak, ikuspegi ezberdinak dituzte, haiek bateratzeko, koordinatzeko eta sarean lan egiteko prestakuntza jaso dute urte hauetan.

Hasiera horren ondoren, Irizarrek esan digu tratu onen inguruko prestakuntza jaso zutela: "guk nola lan egin, kontuan izan beharrekoak, sarekide guztiek hizkuntza bera erabiltzea, gauza berdinei erreparatzea… Joan den urtean genero ezberdintasuna eta berdinen arteko jazarpena landu genituen".

Balorazioa

Hiru urteren ondoren batzarretan balorazio positiboa egiten dute. "Beharra sumatzen zen. Lehen binakako elkarrizketak genituen. Kasu bati buruz hitz egiteko zaila da guztion agendak bateratzea. Baina guztion informazioarekin haur horren egoerari buruzko ikuspegi orokorragoa jasotzen dugu. Horrek errazten du eta denak bihurtzen gara kasu horren arduradun", azaldu du Irizarrek. Aitortu du, hala ere, aurreko inertzia haustea, binakako bilerak egitea, batzutan kosta egiten dela.

Goikoetxeak prestakuntza eta dinamika aipatu du taldeak etorkizunean hobetu beharrekoak. "Hasieratik hona, azkarrago zentratzen dugu gaia, arintasuna helburuak komunean jartzeko… Arlo guztiek euren helburuak izanda asko errazten ditu gauzak. Prebentzio aldetik, baliabideak aurrezten ditugu eta haur eta gazteendako abantaila da".

Gizarte langileak gaineratu duenez, "urte guztian kasuen jarraipena mantentzen saiatzen gara. Udan aisialdi jardueretako begiraleen bidez". Horregatik, Udan Euskarazko eta kirol begiraleei zuzendutako prestakuntza saioak antolatu zituzten joan den urtean. Otsailean musika irakasleen txanda izanen da. "Zeri erreparatu behar dioten azaltzen zaie, kasuren bat atzematen bada, prebentzio aldetik, garaiz iristeko".

Lan moldea

Sareko kide guztiak biltzen dituen batzarra urtean bitan egiten dute, hasieran eta bukaeran. Azkena abenduan izan zen. Han egin beharrekoak zehazten dira, esaterako, guztiek egin beharreko prestakuntza zehaztu. Horiek gauzatzeaz arduratzen dena bospasei pertsona elkartzen duen talde eragilea arduratzen da (ardura horretan txandakatu egiten dira). Hala, prestakuntza saioak antolatzeaz eta haietarako diru-laguntzez arduratzen da.

Baina haur edo gazte eta haren familiaren egoera onbideratzeko talde bereziak osatzen dituzte, kasu taldeak. Hor gurasoak eta zuzenean harremana duten arloetako profesionalek parte hartzen dute. Goikoetxeak azaldu digunez, kasua bideratzeko helburuak, ekintzak, epeak zehazteaz, jarraipena egiteaz eta berrikuspenaz arduratzen da talde hori. "Profesional ugari izateak ikuspegia aberasten du".

27 kide

Modu batera edo bestera haur eta gazteekin lanean ari diren profesionalak dira sareko kide: gizarte zerbitzuak, osasun etxea, osasuneko profesionalak, ikastetxeak, aisialdian lan egiten dutenak (liburuzainak, ludotekariak, kirol begiraleak, musika irakasleak), udaltzainak eta foruzainak. Orain dik parte-hartzaile gehiago izan daitezkeela uste dute.

Logotipoa

Burunda mendebaldeko Haurtzaroko Tratu Onen Sustapen Taldean parte hartzen duten erakunde guztietako eraikinean sarearen irudia dago.

» Irurtzun

Udalaren web-orria hackeatua

Frantziako zerbitzariak eraso dituen eraso zibernetikoak orria ez du erabilgarri utzi

"Web zerbitzuen hornitzaileari egindako erasoaren ondoren udal web orriak berrezartzeko lanean ari gara". Esaldi hori irakurri zitekeen asteartean eta asteazkenean www.irurtzun.es web orrian sartzean. Animsa enpresa publikoak jarritako oharra zen, Nafarroako 60 bat udalen web orriak kudeatzen dituena (Altsasukoak eta Olatzagutikoak martxan daude).

Astearte arratsaldean web orrian Estatu Islamikoaren aldeko eta Israelen eta Frantziaren kontrako mezua zuen irudia agertu zen hackeatutako web orrietan. Animsatik jakinarazi dutenez, haien zerbitzaria Frantzian dago. Ziber erasoak mundu ko 20.000 orriri eragin diela jakinarazi du Poliziak.

» Altsasu

Suteak tailerra txikitu zuen

Iruñeko eta Aguraingo suhiltzaileak itzali zuten Altsasuko parkean suhiltzaile gutxi zeudelako eta beste sute bat itzaltzen ari zirelako

Larunbatean, 17:45 aldera, Altsasuko Ibarrea industrialdeko tailer mekaniko batean sutea piztu zen eta garrek barruko dena hartu zuten. Baita aldameneko pabilioiko teilatuaren zati bat ere. Kea arnastu zuten bi langile arin zaurituta osasun etxera eraman zituzten. Bestalde, barruan zeuden hiru ibilgailuak ezin erabili gelditu ziren. Sua zerk piztu zuen Guardia Civila ari da ikertzen.

SUHILTZAILE GUTXI?

Sua itzaltzera Iruñeko eta Aguraingo suhiltzaileak etorri behar izan zuten, garai horretan Altsasuko suhiltzaileak etxe bateko tximinia batean piztutako sutea itzaltzen ari baitziren. Hura despeditutakoan joan ziren. Sindikatuek behin baino gehiagotan salatu dute suhiltzaileen parkeak gutxieneko langile kopuruaren azpitik daudela.

SAKANA

Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu dute Aralar mendilerroa

Natura gune horren osotasun ekologikoa zaintzeko gainera, kudeaketa plana ere onetsi du Nafarroako Gobernuak

Maialen Huarte Arano

Mendizaleak Aralarren. ARTXIBOA

Foru Dekretu baten bitartez Aralar mendilerroa Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu berri du Nafarroako Gobernuak. Eremu zati handiari eraginen dio izendapen horrek: guztira 14.658 hektareako natura gunea da. Mendilerroa osatzen duen Aralar Mendia izenez ezagutzen den eremuari eraginen dio, baina, baita Aratz, Arakil, Albizu, Arruazu, Lakuntza eta Larraun udalerriei dagokien lur-eremu bati ere eta 53 eta 63 zenbakidun elkarrekiko larreei ere.

Habitat naturalak , basa landaredia eta fauna da zainduta izatea ziurtatu nahi dena. Izan ere, Nafarroako dibertsitate biologiko anitza dago Aralar mendilerroan. Horietako asko, tamalez, desagertzeko arriskuan edo mehatxupean daude beraien banaketa-eremu naturalean, beste batzuk desagertuta daude banaketa-eremu naturalean edo oso azalera txikia hartzen dute.

Kontserbazio egoera onean mantentzea xede

Foru Dekretuaren bitartez dagokion kudeaketa plana ere onartu du Gobernuak. Habitat, espezie, prozesu ekologiko edo elementu natural eta kultural horien kontserbazio egoera egokiari eusteko edo berreskuratzeko beharrezko neurriak jasotzen dituena, natura gune horren osotasun ekologikoa ziurtatzeko. Exijentzia ekonomikoa, soziala eta kulturala kontuan hartu dira izendapen hori egin aurretik eta aisialdia, ingurumen-hezkuntza edo ikerketa bezalako jarduerak ere zein diren aztertu dituzte.

21 dira Nafarroan Kontserbazio Bereziko Eremuak

Aralar mendilerroarekin 21 dira Nafarroan Kontserbazio Bereziko Eremu izendatuak. Azken izendapen horrekin, 14.658 hektarea gehiagok izanen dute zaintza berezia.

» Etxarri Aranatz

Extremera atzera ere PPko zerrendaburu izanen da Etxarri Aranatzen

Gaur egun Etxarri Aranazko zinegotzi den Juan Antonio Extremera (PP) hurrengo hauteskundeetan ere Etxarriko udalerako zerrendaburu aurkeztuko da, PPrekin. Extremerak asteazkenean aurkeztu zuen bere hautagaitza Iruñean, PPko Jaime Mayor Oreja eta Pablo Zalba alboan zituela. Extremera "erreferentea" bilakatu dela eta Etxarri Aranazko herritarren interesak "sutsuki" defendatu dituela nabarmendu zuten.

» Irurtzun

Irurtzundarrek udalaren aurrekontua osatzeko lau egitasmoren artean aukeratu dezakete

Bihartik otsailaren 1era arte zortzi tokitan utzi daitezke inkestak, baita heldu den urterako egitasmo proposamenak ere. Irurtzundarrek argibide orria etxean jaso dute

Bosgarren urtez aurrekontu parte-hartzaileen prozesua martxan da Irurtzunen. Joan den urtean jasotako proposamenetatik abiatuta lehen aukeraketa egin zuen talde eragileak lastailean. Abenduan hainbat talde eta kolektiborekin elkarlanean (269 irurtzundar) proposamenak orraztu eta herritarrei lau proposamen aukeran jartzea erabaki zuten: Plazaolako zubia konpontzea, gimnasioa egokitzea, karpa bat erostea edo igerilekurako sarbidea hobetzea.

Bihartik aurrera, 9 egunez, interesgarrien edo beharrezkoen iruditzen zaien proposamenaren aldeko boza emateko aukera izanen du. Horretarako kutxak Tahona, Mª Jesus elikadura, Lorena fruta-denda, Erosle, udaletxea, libutategia, jubilatu elkartea eta Pikuxar. Aukeraketa papertxoan 2016rako proposamenak ere egin daitezke. Lau proposamenetatik babes gehien jasotzen duenak Irurtzungo Udalari aurkeztuko zaio aurtengo aurrekontuan sar dezan.

Plazaolako zubia

Batetik, zubi gaineko zorua konpondu, harriak zaharberritu eta ingurua txukunduko litzateke eta, bestetik, zubia pasata Artadiako bidearekin lotzen duen bidea berreskuratzea.

Gimnasioa

Kiroldegiko bi gela batuko lirateke, lokal bakarra egin eta etorkizunean gimnasio bihurtuko litzatekeena. Igeltsero, zurgin, beira, zoru, pintura, klimatizazio eta bestelako lanak eginen lirateke.

Karpa

Karpa bat erosi herriko taldeek eta kolektiboek hainbat jarduera egin ditzaten. Proposamenak aurrera eginez gero, erosi aurretik, interesa duten pertsonek eta kolektiboek baldintzak, ezaugarriak, kokalekua, kudeaketa eta funtzionamendua landu eta hitzartu beharko lituzkete.

Igerilekuko sarbidea hobetzea

Kiroldegitik igerilekurako bideko zorua hobetzea eta sendotzea, maldak eta sarrera gurpildun aulkiendako eta haurren aulkitxoendako hobetzeko, errazteko.

Proposamenez

Proposamen asko hainbat arrazoirengatik bidera ezinak dira: dirutza eskatzen dutelako (igerileku estaliak…) edo udalaren eskumenekoak ez direlako (adinekoendako eguneko zentroa, institutua). Proposamenak egiterakoan bideragarriak izatea eta ahalik eta zehatzen adieraztea eskatu diete irurtzundarrei. Proposamenak aukeraketa txartelean idatzi daitezke edo preparirurtzun@gmail.com helbidera bidali. Joan den urtean aukeratua izan zen proiektua, Atakondoa eskolako aldagelak, aurten gauzatuko du udalak. Bestalde, aurreko 4 parte hartze prozesuetan jasotako hainbat proposamen ere egin dira, kostu gutxikoak eta berehala egiteko modukoak zirelako.

» Olatzagutia

Mank-ek hondakinak pertzetan ateratzeko eskatu du

Garbitasunean eta txukuntasunean hobetzeko olaztiarrek zintzilikarioetan hondakinak kuboetan uzteko eskatu du ibarreko erakundeak

Edukiontziak eta zintzilikarioak.

Hondakin sistema berria martxan jarri zenean herritarrei hondakinak ateratzeko pertza pare bat banatu zitzaien. Haien barruan hondakinak jasotzeko ziren, baina hondakinak poltsetan ateratzeko aukera ere eman zieten herritarrei. Baina erabilerak erakutsi du hondakinak zintzilikarioetara poltsetan ateratzeak zikinkeria zabaltzen duela, animaliek haiek apurtu eta barrukoa barratzen dutelako.

Horri konponbidea emateko eta Olatzagutiaren garbitasuna eta txukuntasuna hobetzeko hondakinak kuboetan ateratzeko eskatu du Sakanako Mankomunitateak. Argibideak emateko lau batzar antolatu ditu aste honetan, goiz eta arratsaldez. Mank-eko hezitzaileek argibideak emateaz aparte olaztiarren kexak, iritziak eta zerbitzua hobetzeko ekarpenak jaso zituzten. Gaur egun Olatzagutian 40 zintzilikario gune daude eta bospaseitan besterik ez dago arazorik.

» Lakuntza / Etxarri Aranatz / Altsasu

EHE "Udala eta biok euskaraz" dinamikaren fruituekin pozik

Udalarekin harremana euskaraz nahi dutela esan duten lakuntzarrak. ARTXIBOA

Sakanako beste herriak dinamikarekin bat egitera gonbidatu dituzte: "udala da herritarrengandik hurbilen dugun administrazioa, bertan eragiten has gaitezen Euskal Herrian Euskaraz bizitzeko bidean"

Lakuntzarrak, etxarriarrak eta altsasuarrak aktibatzeko asmoz, Euskal Herrian Euskaraz-ek (EHE) *Udala eta biok* euskaraz dinamika martxan jarri zuen joan den urtean. Haren balantzea egiterakoan eragile euskaltzaleak jakinarazi du asko izan zirela euren udalei harremanak euskaraz, hau da, ohar, bando, inprimaki, publizitate euskarri, lanpostu deialdi eta abar euskaraz izatea nahi zituztela adierazi zieten herritarrak.

Lakuntzan, 28 herritarren eskaerak bideratu zituen EHEk. Udala euskaraz aritzeko lanean ari dela jakinarazi du EHEk, baita berak dinamikarekin segitzen duela ere. Lakuntzarrak udalarekin euskarazko harremanak nahi dituztela eskatzera animatu dituzte.

Urte Berri, Asmo Berri

Etxarriarrek eta Etxarriko eragileek urte berrirako euskararen aldeko konpromisoak hartu eta elkarrekin elkarbanatzeko aukera izanen dute gaur, 19:00etan, plazan.

Etxarri Aranatzen herritarrek egindako eskaerei erantzunez udalak UEMArekin batera egindako euskararen erabilera plana aurkeztu zien EHEko kideei. Haren bidez, urte gutxiren buruan, udala euskaldunduko dela jakinarazi zien. Plan horren zehaztasunak ezagutarazteko batzar irekia iragarri dute urte hasierarako.

Altsasun, udalak herritarren eskaerak onartzearekin batera EHEkoekin elkarlanean hasi ziren. Euskararen Ordenantza onartzeko bidean zegoen eta horretan aritu dira. Hura onartu ondoren, euskaldunen errolda osatzeko elkarlanak segitzen du.

SAKANA

Benar Intxaurrondo, (zutik 5.a ezkerretik) lankide izan zituenez inguratuta larunbatean egindako despedidan.

Klinikaren 20 urteko ikuspegia

Josefina Arregi klinikan Benar Intxaurrondoren ordez Josune Lopez de Goikoetxea gizarte langilea hasi da lanean. Intxaurrondorekin klinikan egindako ibilbideaz hizketatzeko elkartu gara

Benar Intxaurrondo, Josefina Arregi klinikako gizarte langileak, ostiralean utzi zuen azken 20 urteetan bere lantokia izan dena. Klinikaren argazkia egiteko eskatuta burura etorri zaiona irribarre bat da. "Asko ibili da. Oso profesional onak pasa dira eta orain ere oso onak daude. Ilusio handiarekin aurrera eginen dute".

Klinika bera eraikitzen ikusi zuen Intxaurrondok. 1994ko udan, Felipe Lezearekin batera, obretan izan zen, arkitektoarekin batera guztia begiratzen. "Errietan egoten ginen. Harendako praktikoa zena klinikarako ez zen egokia". Iruñean elkar ezagutu zuten. Lezearen emazte Josefina Arregiren egoera zela eta hura Iruñeko eguneko zentro batera eramaten zuen. "Batzuetan senarra ezagutzen zuen, besteetan ez". Lezeak Arregi goizero Iruñera eraman eta arratsaldeetan ekarri egiten zuen. "Hango profesional eta teknikoekin hizketan Altsasun halako zerbait egin nahi zuela esan zuen. Bere emaztea nola zegoen ikusita, eskualdeko gaixoendako zerbait egin nahi zuen".

Zentro hartako profesionalekin (Madoz, Martin, Lourdes, Nadal…) hasi zen ideia mamitzen. Bere lurrak eman zituen klinika jasotzeko. Argibide zentroko profesionalak etorri ziren zentroa martxan jartzera. "Nik haiekin harremana nuen eta hala etorri nintzen". Baita Ines Frances medikua eta Angel Albeniz neuropsikologoa ere. Fisioterapeutak, erizainak… etorri ziren gero.

Hasiera

Klinikaren egitasmoa ezagutzera ematea izan zen lan taldearen lehen egitekoa. "Familiekin egotea zen. Zituzten kezka eta inpresioak jaso. Zerbitzu berria zen eta zer egiten zen ez zen ezagutzen. Aiton-amonendako ona zen zerbait zela saltzen egon ginen".

Inolako zerbitzurik ez zegoenean Sakanan egoera "gogorrak" zeudela gogora ekarri du Intxaurrondok: "Askotan ezkutuan etortzen ziren. Gaixotasunei buruz ez zegoen ezagutza handirik. Adinarekin lotutako gaixotasuna zela eta <falta de riego> deitzen zela. Ez gehiago".

Intxaurrondok azaldu digunez, "hori ez da horrela. Adineko jende asko oso sano daude. Gaixo daudenak ongi diagnositikatu behar dira. Dementzia bat bada, zein dementzia den jakin behar da. Orduan ez zen jakiten. Jendea janzten joan da". Eguneko zentrora etortzen zirenak ikusi zuten ona zela, "gaixoak aktibo daude eta haiek zeuden lekura bideratutako terapiak direla ohartu zen jendea. Errendimendu kognitibo, fisiko eta soziala".

1994ko azaroan 20 plazako eguneko zentroarekin hasi ziren (gerora 25era zabaldu zen). "Paziente gutxirekin, baina autobusa eta guzti". Kanpo kontsultak ere orduan jarri ziren martxan. Aurretik Sakanako mediku kontsultategi guztiak bisitatu zituzten eta hitzaldiak eman zituzten klinikaren egitasmoa aurkezteko. "Feliperen laguntzarekin, gurekin etortzen baitzen".

Zaintzaileak zaindu beharraz

Gaixotasunaren ezaugarriak eta haiek nola erantzun behar zuten azaltzen genien. Hasieratik lan hori egin du Intxaurrondok familiekin. "Gaixoek ezinegona bizi dute, non dauden, eurak zein diren ere ahaztu egiten zaie. Familiari ere ezinegona sortzen dio horrek. Egoera horietan familiari gaixotasunaren aurrean nola aritu, jarraibideak eman behar zaizkie".

Familiekin egindako lan hori "gustukoa" izan du Intxaurrondok: "jendeak ongi hartzen zuen. Hitz egiten zuen, kezka atera. Beste familiekin haien egoera partekatzea ona da". Hilean behin elkartzen ziren familia taldeak eman ditu ere Intxaurrondok: "espazio bat, kezkak, beldurrak eta beste konpartitzeko". Etxean gaixoak zaintzen dituztenek gainean duten pisu eta kezka handia nabarmendu ditu: "hori denbora luzez eramanez gero estresantea da eta estresak depresiora eramaten zaitu". Gaixoa eta familia hobe egoteko lan egiten dute Josefina Arregi klinikan. Oharra egin digu gizarte langileak: "luzea da gaixotasun hau. Zaintzailea ere gaixotu daiteke eta hura ere zaindu beharra dago. Zaintzaileak berarendako espazioak ere bilatu behar ditu, gero gaixoa hobe zaintzeko".

"Teknikoki eta materialki ez dugu asko aurreratu, gabeziak daude. Baina klinikak funtzionatzen badu, ospitaletik bereizten duena, ematen duen tratua da. Arlo horretan laguntzaileek eta erizainek, hor, benetan, lan handia egiten dute. Bakoitzari arreta pertsonalizatua ematen diete, egoeraren arabera behar dutena ematen diote". Fisioterapiarekin eta okupazio-terapiarekin gauza bera gertatzen dela nabarmendu du Intxaurrondok. "Maitasun handiarekin tratatzen dituzte. Beldurrik gabeko kontaktua da". Eguneko zentroan ama izan zuen gizon baten esanak gogora ekarri ditu: "tratu on hau patentatu egin nahi dut".

Osorik: wwww.guaixe.net

» Altsasu

Gazte Asanblada gaztetxearen 25. urteurrenera begira

Altsasuko gazteei gaztetxera joateko gonbitea luzatu die eta aurtengorako hainbat ekimen iragarri ditu

Txikipolita kalean zegoen Sokorro etxea 1990eko lastailaren 5ean okupatu zuen Altsasuko Gazte Asanbladak (AGA) eta ordutik gaztetxea hartzen du eraikinak. Aurten mende laurdena beteko du eta horri begira jarri da AGA. Eta deia egin die gazte altsasuarrei: "lore sortak baino, muxuak, eta besarkadak baino, irudimena eta parte hartzea ditu gustuko gure etxeak. Zure gose da Gaztetxea". Gaztetxera joatera animatu dituzte, "ekarri zuen ideiak eta ametsak, zuen desirak eta nahiak, zuen indar eta ahuldadeak, zuen musika eta artea…"

AGAk aurreratu du urtean barna makina bat ekimen burutuko dituela 25. urteurrena ospatzeko. Hilero zerbait izanen dela aurreratu du AGAk. Hala, otsailaren 11n, Porrotx pailazoa gaztetxean arratsalde pasa izanen da. Lastailerako erakusketa prestatu nahi dute eta hura osatzeko materiala izan dezaketenei deia luzatu diete, argazkiak, bideoak, kamixetak eta bestelako materiala uzteko. Urtero antolatzen dituzten ekimenak ere bere tokia izanen dute AGAren urteko programazioan.

Makina bat gaztek aurkeztu zituzten gaztetxearen 25. urteurrenerako asmoak.

»

Langabeziak gora eginez despeditu zuen urtea

Aurreko hilarekin alderatuta, abendu akaberan 82 sakandar gehiago zeuden Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emanda. Guztira, 1.639 dira.

Urteko azken hilean gorakada handia (%8,73) izan zuen langabeziak Sakanan. Emakumezkoak 838 ziren (%51,13, 7 gutxiago), gizonezkoak, berriz, 801 (%48,87, 89 gehiago). Langabe gehien biltzen dituen adin tartean 45 urte edo gehiagokoena da, 745 (%45,45, 17 gehiago). Haren atzetik 25 eta 44 urte bitartekoen artekoa dago, 736 (%44,91, 64 gehiago). Azkenik 25 urte baino gutxiago duten langabeak 158 ziren (%9,64, 1 gehiago).

SEKTOREKA

Zerbitzuen arloan lan egin nahi luke Sakanako langabeen %57,35ek (940, 30 gehiago). Industrian aritzeko prest daudenen eskaerak %27,88 dira (457, 48 gehiago). Eraikuntzarako eskaerak, berriz, %6,83 dira (112, 13 gehiago). Lehen sektorearen aldeko hautua langabeen %2,62k egin dute (43, 1 gutxiago). Azkenik, aurretik lanik egin ez dutenen kopurua %5,31koa da (87, 8 gutxiago).

KONTRATUAK

Abenduan Sakanan 485 kontratu sinatu ziren (43 eta %8,14 gutxiago). Emakumezkoek %51,55 sinatu zituzten (250, 14 gehiago). Gizonezkoen sinadura dute kontratuen %48ak, 45ek (235, 57 gutxiago). Sinatutako kontratuetatik hasieratik mugagabeak zirenak %2,47 besterik ez ziren (12, 1 gehiago). Abenduan mugagabe bihurtutako kontratuak %3,09 izan ziren (15, 8 gehiago). Izan ere, kontratu gehienak, %94,43, aldi baterakoak ziren (510, 52 gutxiago). Nafarroan urteko azken hilean sinatu ziren 22.567 kontratuetatik Sakanan sinatutakoak %2,15 ziren.

URTE ARTEKO ALDEA

2013ko abenduarekin alderatuta Sakanan 131 langabe gutxiago daude, %7,4ko jaitsiera. Gizonezkoen artean langabeak 97 gutxiago dira (%10,8 behera). 34 emakume langabe gutxiago daude urte bat geroago, (%3,89ko jaitsiera). Adin tarteei dagokienez, jaitsiera handiena 25 eta 44 urte artekoen tartean eman da, 73 gutxiago, %9,02ko jaitsiera. 45 urte edo gehiago duten langabe sakandarren kopurua 46an txikitu da, %5,81. 25 urte baino gazteen tartean 12 langabe gutxiago daude urte baten buruan, %7,05 gutxiago.

2014KO KONTRATAZIOA

Joan den urtean Sakanan 7.272 kontratu sinatu ziren. Haietatik %54,02 (3.928) gizonezkoek sinatu zituzten. Emakumezkoek, berriz, kontratuen %45,98 (3.344) sinatu zituzten. Kontratu horietatik %95,7 (6.959) aldi baterako bezala hasi ziren. Hasieratik mugagabe izan ziren kontratazioak %2,6 (186) izan ziren. Azkenik, mugagabe bihurtu zirenak %1,71 (%124) izan ziren.

SAKANA

Korrikan parte hartzeko gonbitea

Urepelen martxoaren 19an hasi eta 29an Bilbon bukatuko da 19. Korrika. Sakanatik 27tik 28rako gauean pasako da, ostiraletik larunbaterako gauean

Larunbatean aurkeztu zuten Iruñean Korrika 19. *Euskahaldun* leloarekin bat eginez, euskararen aldeko lasterketan parte hartzeko gonbitea luzatu zuten AEK-tik. Otsailetik aurrera Korrika-ko kilometroak eskuratzeko eta Korrika Laguntzaile izateko deia ere egin zuten aurkezpenean (12 euroren truke).

Nafarroan AEK-k 40 urte daramatza herritar helduei zerbitzua eskaintzen. AEK-ko ikasle asko bere garaian ikastetxean ikasi ez zutenak dira. Haiek euskaltegietatik euskaraz komunikatzeko gai direla ateratzen ikustea gogobetetzen ditu AEK-ko irakasleak. AEK-k Nafarroa osoan herritar helduei euskara ikasten eta erabiltzeko aukerak ematen segitu nahi du. AEK-ko Nafarroako euskaltegien koordinatzaile Alizia Iribarrenek azpimarratu zuenez, "oso garai gogorrak pairatzen ari gara". Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikaren xedea euskara guztiz zokoratzea dela salatu zuen. Era berean, euskaltegiei dagokienez, gogorarazi zuenez, "Gobernuak ez du inolako sustapenik edo planifikaziorik, eta azken hiru urteetan ez ditu berez oso eskasak ziren laguntzak banatu".

Ekitaldian, beste behin, bere lanarekin aurrera jarraitzeko, AEK-k lagun ugariren sostengua jaso du. Arlo ezberdinetako pertsonak agerraldian izan ziren, eta ikasleen zein irakasleen inguruan eseriz, haien babesa irudikatu nahi izan zuten. Sakandarrak ere izan ziren: Garbiñe Petriati (Hizkuntza Eskubideen Behatokiko Zuzendaria), Castillo Suarez (euskara teknikaria) eta Alberto Bandiaran (idazlea-kazetaria). Erakundeek ukatutako arnasa herritarrek eta eragileek ematen dietela nabarmendu zuten AEK-tik. "Tinko eta indartsu" segitzeko asmoa adierazi zuten AEK-kideek.

Axioren bizia dokumentalera

Axio Floresi buruzko dokumentala ekainerako prest izatea nahi du Axioren Lagunak Fundazioak. Ekimena crowfunding bidez finantzatuko da

Larunbatean Axioren Lagunak fundazioak prentsaurrekoa eskaini zuen Ziordiko Udalean, proiektu baten berri emateko. "Axio zenari buruzko dokumentala egin nahi dugu. Egitasmo honen atzean gaude Axioren Lagunak Fundazioa, Ziordia eta Olaztiko lagunak, Arbizuko Udala, Arbizuko lagunak, Axioren familia eta aizkolariak eta gertuko lagunak" adierazi zuen Axioren Lagunak fundazioko Monica Etxebarria arbizuarrak. Prentsaurrekoan Axioren senitartekoak, lagunak, aizkolariak eta beste izan ziren.

Etxebarriak esan zuenez, "nik ez nuen harreman zuzena izan Axiorekin baina bere presentzia harrigarria zela argi dago. Harakina, sukaldaria, mikrofonoa eskutan, aizkoran, ekitaldi solidarioetan... nabarmendu egiten zen pertsonaia zen, eskuzabala. Gaixotu zenean sortu zen elkartasun olatua ere ikusgarria izan zen". Haren bizitza kontatu, azaldu eta gorde behar zela pentsatu zuten hainbatek.

Axio sakandar moduan figura inportantea izan zela gaineratu zuen arbizuarrak. "Arbizun jaio, Ziordian bizi eta Sakana osoan ezaguna izan zen, baita Euskal Herrian ere. Kanpora, Amerikatara ere joan zen gure kulturaren eta herri kirolen berri emateko. Omenaldia merezi zuen eta bere memoria betirako gordetzea" nabarmendu zuen Etxebarriak.

www.axioflores.com

Web gunea martxan dago, ekimenari buruzko informazioa eta beste jasotzeko.

Prentsaurrekoan Axioren senitartekoak eta lagunak izan ziren. Hunkituta hartu dute dokumentala egiteko asmoa.

Axio, bihotz bat herriarentzat

Hitz horiekin abiatu zuen bere tartea Axioren lagun Olatz Irizar ziordiarrak. "2014ko ekainean hil zitzaigun. Hilabete batzuk pasatuta bere bizitzari buruz dokumentala sortzeko ideia sortu da, bere lekukotza gordetzeko, herriari emanda bizi izan zen gizonari omenaldia egiteko eta belaunaldi berriei bere lana ezagutarazteko. Askorengan arrastoa zergatik utzi duen azaltzeko. Berak sakandarrago, euskal herritarrago eta solidarioagoa egin gintuen. Horrela, dokumentalean ume eta gaztetako kontuak bildu, bere konpromiso sozial eta politikoa gorde, kirolean egindako lana azaldu eta bere gaixotasunaren aurrean sortutako elkartasun olatuaren berri eman nahi dugu" adierazi zuen Irizarrek.

Egileak Insausti, Reparaz eta Unanua

Enara Insausti arbizuarrak egingo ditu dokumentaleko elkarrizketak eta bideo lanak. Pello Reparaz musikari arbizuarrak soinu banda sortuko du eta lan guztiaren muntaketa Xabi Unanua irurtzundarrak hartuko du bere gain. Dokumentalak 40 minutu inguru izanen ditu eta ekainerako egina egongo dela aurreikusten dute. "Ekitaldiren bat antolatuko dugu aurkezteko. Bestalde, Axioren familiari gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu, gure ekimena begi onez hartu dutelako" nabarmendu zuten antolatzaileek.

Dokumentalean elkarrizketak jasoko dira gehienbat. "Ahalik eta jende gehienarengana hurbilduko gara eta haien testigantzak jaso" aipatu zuen Irizarrek. "Axio joan zela denbora gutxi pasa da eta askorendako gogorra izango da. Hortaz, eskerrak eman nahi dizkiegu elkarrizketatu guztiei. Bestalde, edonork Axioren argazkiak, bideoak edo informazioa badu, jar dadila gurekin harremanetan (info@axioflores.com); bihotzez eskertuko dugu" gaineratu zuen. "Dokumentalean Axioren lagun guztiak agertzea ia ezinezkoa izango dela badakigu, bere emazte Begok dioen bezala Axio lagunetan millonarioa zelako, baina ahalik eta informazio gehiena jasotzen saiatuko gara" nabarmendu zuen Irizarrek.

Finantziazioa: internet eta kontu korrontea

Dokumentalaren gastuak estaltzeko, finantziazio moduan bi bide nagusi landuko dituzte. Batetik, kontu korrontea zabaldu dute (3035 0112 00 1121055951), eta, bestetik, crowfunding bidea landuko dute. Hau da, interneten www.karena.eu izeneko plataforman Axioren Dokumentala izeneko proiektua jaso dute, eta bertan diru-laguntza eman ahal izateko dauden moduak azalduko dira. "10 eurotatik hasita 200 euro bitarteko laguntza eman ahal da. Gainera, trukean zerbait jasoko du emaileak, emandako diru kopuruaren arabera. Oroigarriak, dokumentala bera, dokumentalaren bukaeran norberaren izena agertzea eta beste jaso daiteke trukean". Jendea ekarpena egitera animatu dute.

Crowfunding kanpainak 40 egun irauten ditu, ilbeltzaren 16tik otsailaren 24ra arte. "Jende asko mugitzen da interneten eta crowfunding bide hori jorratzea interesgarria iruditu zaigu. Eta aipatu bi bide horietaz aparte, akaso beste ekitaldi batzuk egingo ditugu, afariak edo dena delakoak" gaineratu zuen Monica Etxebarriak. Halaber, Ziordiko aurkezpenaz gain, dokumentalaren egitasmoa Olaztin eta Arbizun aurkeztuko dute ere.

San sebastianak

» Lakuntza

Lakuntzako san saastinak

Aurten danborradak 25 urte betetzen zituen, eta horregatik danborradako arimek, Ricardo Aretak eta Joxe Floresek, jaurtiki zuten suziria. Danborrada txikiak haur asko bildu zituen eta danborrada handian berrikuntzak izan ziren: danbor erraldoiaren karrozaren atzetik kalejira egin zuten, Ricardo Areta aritu zen zuzendari eta bi pieza berri eskaini zituzten: Diana numero uno eta Otsagiko Biribilketa. Danborradako estandartea eramaten duen Juan Jose Burillori, lakuntzar unibertsala den Joxe Lazkano "Toto"-ri eta beti laguntzeko prest dagoen Jesus Mari Zabarte "Casto"-ri jarri zizkieten ohorezko txanoak. Bestalde, Rosario eta Lourdes Sotok irabazi zuten piperropil lehiaketa eta asteartean lakuntzarrek erromeria egin zuten ermitara eta arratsaldean Alkate dantza dantzatu zitzaion udal ordezkariei.

» Olatzagutia

Olaztiko san sebastianak

Portu kale gainean dagoen ermitako estalpeak asteartean eguerdiko meza ondorengo auzatea eta arrosario ondorengo txokolate banaketa hartu zuen. Asko izan ziren batean eta bestean. Iluntzeko auzatea, berriz, frontoian izan zen, trikitalariek girotuta.

San antondarrak

Dorrao. San antondarrak meza ondoren gosaria eta bazkaria izan zituzten Itur-aldea elkartean.

Bakaiku. Kofradiak 300 urte betetzen zituen egunean asko izan ziren elizkizunean eta gehiago ondorengo bazkarian.

Iturmendi. Batzarrean San Juan baleontziaren eraikuntza lanak bisitatu eta galtzada berritzeko proposamenak zeuden.

Urdiain. Sainduaren omenezko kantua abestuz atera ziren kofradeak eta gero herria bedeinkatu zen. +www.guaixe.eus

GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 564 355
679 160 116
24 orduz

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com

Hainbat aukera

Galdetu

948 564 275

Pedro Bergara

Banintu bi hegal
joan nindaike berehala
zure leiho hegira
kantuz agurtzera.

Rufino Mazkiaran Guridi

Maite ditut
maite
geure bazterrak
lanbroak...

Nere barruan
pizten diren
bazter miresgarriak
ikusten.

Gero arte

Etxekoak

Familiak eskerrak eman nahi dizkizue une latz hauetan gurekin egoteagatik.

Oroigarriak egiten ditugu
Nahi duzun argazki eta testuarekin
Foru plaza 23-1 Altsasu · 948 564 275 · argi@guaixe.net
Guaixe KOMUNIKAZIOA

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK
2 TEKNOLOGIA
3 LANA/NEGOZIOAK
4 DENETARIK
5 IBILGAILUAK
6 HARREMANAK
7 AISIA/KIROLA
8 FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/ hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Ikastaroak

Olatzagutiko Erburua kiroldegian azken plazak. Pilates, indoor zikloa, aerodance, mantentze soinketa eta yoga ikastaroetan azken plazak betetzeko daude. Otsaila eta maiatza bitarteko ikastaroak. Informazio gehiago kiroldegian edo 948 56 45 12 telefonoan.

IFESek hainbat ikastaro antolatu ditu Iruñean. Informazio gehiago www.ifes.es, 948-15 31 93 edo 948- 46 71 20. On line ikastaroak: izen ematea http://www.ifes.es

Forem Navarra – CCOO ikastaroak. Informazio gehiago: www.foremnavarra.org

Lehiaketa

Mikro-Ipuin lehiaketa. Euskara Kultur Elkargoak eta Pamiela Etxeak A-D ereduetako Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzendutako lehiaketan parte hartzeko epea ilbeltzaren 31n bukatuko da. Informazioa http://www.euskarakultur.org/eus/arauak-2014

Oharrak

GOIENER energia berriztagarrien sorkuntza eta erosle kooperatiba. Batzar informatiboaren deialdi irekia. Hil honen 28an, asteazkena, arratsaldeko 18:30ean Mendizabala institutoan (Portal de Lasarte kalea z.g., Gasteiz) ospatuko da, areto nagusian. Goiener ezagutzera gonbidatzen zaituztegu.

Odol-emaileak. Otsailaren 3an Uharte Arakilen eta Lakuntzan arratsaldez.

Zozketa. Jaiotzazaleen zozketa: 479 zk.

Zozketa. Pilotaria NAUN Etxarri Aranazko nesken pala taldearen zozketaren zenbakiak: Errigora saskia: 704; Tablet: 35.

Iruñeko euskarazko telebistaren alde. Xaloa telebistak Iruñerrian euskara hutsean emititzen hasteko 50.000 € behar ditu. Diru ekarpena non? www.karena.eu/proiektua/xaloa-telebista-iruñerrian edo Iruñeko Karrikiri Euskal dendan (Xabier Karrika 4) eta Katakrak liburudendan (kale Nagusia 54).

EHE ren zozketa. Edinburgon 2 lagunendako egonaldia 348 zb txartelak eskuratu du. Zenbaki saituaren jabea euskaltzale@euslherrianeuskaraz.org e-postara mezua bidal dezala.

CAF-ELHUYAR sariak. Hiru kategoria daude: Dibulgazio-artikulu originalak (2000 euroko saria), zientzia-kazetaritzaren arloko lanak (2000 euro) eta zientzia gizartean sorkuntzabeka (5000 euro). Lanak 2015eko otsailaren 12a arte bidal daitezke, Elhuyarren egoitzara (Zelai Haundi kalea 3, Osinalde industrialdea, 20170 Usurbil) edo cafelhuyarsariak@elhuyar.com helbide elektronikora.

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10 , sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Nafarroan herri komunikabide bat sortzeko. Diru bilketa hasi dute, Ahotsa behar dugu lelopean. Ekarpenak kontu korrontean (3035 0229 39 2290033933 Laboral kutxa) edo http://goteo.org/project/ahotsa-behar-dugu?lang=eu bidez egin.

Tartalariendako laguntza. Laguntza ekonomikoa Laboral kutxa 3035 0068 08 0680058591 korrontean sartu daiteke.

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabaltzen eta finantzatzen: http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Haurraren erritmoak errespetatzen dituen eskola librea nahi baduzu. Deitu 661- 59 04 20 telefonora.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosfosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.net.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak, Iruñeako eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoen inmatrikulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakanan produktu ekologikoak zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarriz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorrik. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarra eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olioa, gazta, arroza, pasta, gailetak, txokolatea, haragia, behi esne eta esne begetalak, eztia, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarrin jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehaskak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gaztetxe ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenetan. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakanan. Sakanako Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzuak martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalei, eta baita etorkin beraiei ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua. 9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenetan Etxarri Aranatzen, astearteetan Irurtzunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakanamank.com posta elektronikoan.

JAIOTZAK

- **Aimar Barandiaran Etxeberria,** abenduaren 23an Etxarri Aranatzen.
- **Chiara Martinez Fernandez,** ilbeltzaren 13an Irurtzunen.

EZKONTZAK

- **Pedro Maria Zudaire San Roman eta Maria Suarez Garcia,** ilbeltzaren 17an Altsasun.

HERIOTZAK

- **Francisco Gastaminza Ezker,** ilbeltzaren 17an Olaztin.
- **Jose Maria Bengoechea Urrestarazu,** ilbeltzaren 17an Altsasun.
- **Pedro Bergara Ruiz,** ilbeltzaren 19an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

kirola >>

PILOTA

ESPAINIAKO KLUBEN ARTEKO TXAPELKETA: A multzoan Irurtzunek San Cosmeri banakakoan irabazi zion baina binakakoan, aldiz, galdu zuen. B multzoan Altsasuk Uharte Iruñeari irabazi zion, bai banakakoan eta baita binakakoan ere.

Atletismoa

Beunza Ergoienako podiumean.

Izaskun Beunza hamargarrena Nafarroako Kros Laburrean

Javier Nagore eta Maitane Melero, Nafarroako txapeldunak

Lizarrako Los Llanosek hartu zuen Nafarroako Kros Laburra Txapelketa. 4.050 metroko proba izan zen eta 140 korrikalari lehiatu ziren guztira. Emakumezkoen lasterketan 32 korrikalarik hartu zuten irteera eta Maitane Melero izan zen azkarrena (14:17). Lehia estua izan zuen Vanesa Pacharekin eta Ana Ollorekin, eta azkenean Melero izan zen txapelduna, Pacha bigarrena eta Ollo hirugarrena. Izaskun Beunza olaztiarrak lan bikaina egin zuen eta 10.a sartu zen helmugara (15:36). Gizonezkoetan Javier Nagore (12:02) izan zen txapelduna, Marcos Yaniz bigarrena (12:12) eta Antonio Javier Casado hirugarrena (12:15).

Saskibaloia

Sakanako II. Saskibaloi Topaketen ordua

Premini mailako 5 talde hasi dira Sakanako I. Saskibaloi Topaketetan lehiatzen. Igandean bigarren jardunaldia jokatuko dute, Altsasuko Zelandin

Aurreko Saskibaloi Topaketa batean hartutako irudia.

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Sakanako II. Saskibaloi Topaketak antolatu ditu, hainbat laguntzailerekin batera -Irurtzun, Etxarri Aranatz eta Altsasuko Udalak, Altsasu eta Irurtzungo Saskibaloi Taldeak eta Andra Mari ikastola-. Aipatu topaketetan premini mailako taldeak ariko dira, 8 urtetik 10 urtera bitarteko neskamutikoak, Altsasuko Saskibaloi Taldekoak, Irurtzungo Saskibaloi Taldekoak eta Andra Mari ikastolako Saskibaloi Taldekoak. Helburua saskibaloia sustatzea eta Sakanako talde eta neska-mutikoen arteko harremanak bulkatzea da. Ez da txapelketa lehiakorra, eta horregatik ez da sailkapenik eginen.

Aurten nobedadeak izan dira. Topaketak, berez, azaroan hasi ziren, baina azaroan eta abenduan ez dira taldeka lehiatu. Herri edo klub guztietako jokalariak nahasita aritzen ziren. Aldiz, ilbeltzetik aurrera, bakoitza bere talde edo klubarekin lehiatuko da. Guztira 5 talde lehiatuko dira: Irurtzungo Amurrainak, Etxarriko Lehoiak, Altsasuko Oreinak, Etxarriko Arranoak eta Altsasuko Basurdeak. Partidak igandetan jokatzen dira, Altsasuko Zelandi kiroldegian, Etxarri Aranazko San Donato ikastetxeko pilotalekuan edo Irurtzungo kiroldegian. Zelandin jokatzen direnean bi partidak batera jokatzen dira, goizeko 11:00etan. Aldiz, Etxarrin eta Irurtzunen bata bestearen atzetik jokatuko dira, goizeko 11:00etan eta 12:00etan jokatuko dira, martxoaren 8raino. Ondoren, martxoaren 29an, 3x3 Saskibaloi Txapelketa abiatuko da. Guztira 4 jardunaldi jokatuko dira 3x3 Txapelketan.

Egutegia

Klub edo taldeen arteko txapelketa honetan guztira 5 jardunaldi

Sakanako Saskibaloi Topaketak. 2. Jardunaldia

Igandean, 11:00etan, Zelandin
11:00etan: A.Basurdeak – E.Arranoak
12:00etan: E.Lehoiak – A.Oreinak (I.Amuarrainak atseden)

Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

17. JARDUNALDIA

LAGUN ARTEA 4 – AIBARES 2
San Saastinetan garaipena ospatzeko aukera izan zuten lakuntzarrek. Anderrek eta Cristianek sartutako bi goleko errentarekin joan ziren atsedenaldira lakuntzarrak. Aibares markagailuen hurbildu zen baina Unai Bakaikoak Lagunen 3.a sartu zuen. Nahiz eta Aibaresek 2.a sartu, Pitik Lagunen 4.a lortu zuen, 3 puntuak etxean geratuz.

Sailkapena >>

1. Mendi ..... **41 p**
11. Lagun Artea ..... **19 p**

Asteburuko jardunaldia

LAGUN ARTEA – ZIRAUKI
(Igandean, 16:00etan, Lakuntzan)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

17. JARDUNALDIA

LEZKAIRU 0 – ETXARRI ARANATZ 1
ALTSASU 2 – UNIVERSIDAD DE NAVARRA 2
Etxarri liderra eta Lezkairu parez pare aritu ziren. Baloi guztiak jokatu zituzten eta jokaldi ederrak sortu. Xabatek Etxarri aurreratu zuen atsedenaldia baino lehen, eta nahiz eta Lezkairu saiatu, Etxarrik 3 puntuak ekarri zituen. Bestalde, Altsasu eta Universidad de Navarraren arteko partidan Riverok Altsasu berehala aurreratu zuen. 2. zatian Unibertsitatekoek bi gol sartu zituzten, 1-2 aurreratuz, baina partida bukatzear zela bina berdintzea lortu zuen Altsasuk.

Sailkapena >>

1. Etxarri Aranatz ..... **43 p**
5. Altsasu ..... **28 p**

Asteburuko jardunaldia

ARROTXAPEA – ETXARRI ARANATZ
(Larunbatean, 15:30ean, El Iratin)
ALTSASU– MUTILBERA
(Larunbatean, 16:00etan, Altsasun)

ELOMENDIKO TXAPELKETA. 2. fasea

6. JARDUNALDIA

ORORBIA - EGIARRETA (atzeratuta)
MODERNILLO 4 - ZALDUA 5

A multzoko sailkapena >>

1. Egiarreta ..... **19 p**

B multzoko sailkapena >>

1. Zaldua ..... **14 p**

Asteburuko jardunaldia

BAR POUKAS - EGIARRETA
ZALDUAK atseden jardunaldia du

Mendi lasterketa

Joxeja Maiza.

Joxeja Maiza 15.a Garingo Mendi lasterketan

179 korrikalarik hartu zuten parte (9,5 km)

Igandean jokatu zen, Beasainen, Garingo 3. Mendi Lasterketa (9,5 km). 179 korrikalari iritsi ziren helmugara, Imanol Larrañaga azkoitiarra buru zela (41:30). Joxeja Maiza etxarriarra 15.a sartu zen helmugara (46:37), Felix Benjumea altsasuarra 20.a (47:15), Alberto Razkin etxarriarra 35.a (49:02), Mikel San Martin etxarriarra 138.a (1:00:35) eta Erkuden San Martin etxarriarra 144.a (1:01:39).

Areto futbola

Jumillak Magnaren garaipen bolada eten egin zuen

Murtziako taldeak 6-4 irabazi zion Magnari

Azkeneko sei jardunaldiak irabazi eta gero, larunbatean Murtziako Jumillak 6-4 hartu zuen menpean Magna Nafarroa Xota, talde irurtzundarraren garaipen bolada bertan behera utziz. Hala ere, partida bikain hasi zuten Imanol Arregiren mutilek, 8. minuturako eta Jumillaren defentsa akatsak aprobetxatuz 0-2 aurreratu baitzen Magna, Jesulitoren eta Carlitosen golei esker. Baina tarte laburrean berdintzea lortu zuen Jumillak.

Bigarren zatian Jumilla aurreratu zen. Jesulitok hirura berdintzea lortu zuen, eta partidaren erritmoa bizi-bizia zen. Minutu eskas batean Jumillako Aaronek bi gol sartu zituen eta nahiz eta Imanol Arregik Victor Arevalo atezain-jokalari moduan jarri eta Magnakoak behin eta berriz saiatu, Irurtzungoek ezin izan zioten partidari buelta eman. Jesulitok 5-4 gerturatzea lortu zuen baina Jumillak seigarren gola sartu zuen eta horrela despeditu zen partida.

Jumillaren kontra galduta itzuli ziren.

Gaur Inter Movistar hartuko dute Anaitasunan

Bartzelona da liderra (46 puntu). Seigarren postua galdu du Magnak eta orain 7.a da, 30 punturekin. Asteburuan partida konplikatua du Magnak, gaur sailkapenean 45 punturekin hirugarrena den Inter Movistar taldea hartuko baitu Iruñeko Anaitasuna Pabilioian, 20:30ean. Inter talde ahaltsua da, lehen mailako oilarretako bat, baina espero dezagun etxean jokatzeak Magnari hegalak ematea eta irurtzundarrak garaipenaren bidera itzultzea.

»

Sorpresak

Futsalsakana txapelketako azken jardunaldiak sorpresak utzi ditu

9. jardunaldiko emaitzak

Arbizu K.T. **4** – Hijos de perla **6**
Iturmendi **4** – Back Street Boys **5**
Arbizu harrobia **2** – Auzomotojorik **7**
Bunker **1** – Racing San Migel **4**

Futsalsakana txapelketak sorpresa ugari utzi ditu asteburuko jardunaldi honetan. Batetik, Arbizu liderrari 4-6 irabazi zion Hijos de perlak. Bestalde, goi postuetako lehian dagoen Bunker taldeari 1-4 irabazi zion Racing San Migelek, eta puntu garrantzitsuak lortu zituen. Iturmendik atzera ere galdu egin zuen, 4-5 Back Street Boys taldearen kontra, eta Auzomotojorik talde etxarriarrak 2-7 irabazi zion Arbizu harrobiari.

10. jardunaldia

Larunbatean Uharte Arakilen
15:00etan: Auzomotojorik – Arbizu K.T.
16:00etan: Racing San Migel – Arbizu harrobia
17:00etan: Iturmendi – Bunker
18:00etan: Back Street Boys – Hijos de la perla

Futbola

Bigarren itzuliari ekinen zaio Kimuen Futbol 8 Topaketetan

Mank-ek antolatutako Sakanako Kimuen Futbol 8 Topaketetako lehen itzulia despedituda, igandean jokatu baitzen 9. jardunaldia. Igandean bigarren itzuliari ekingo zaio, 10. jardunaldia baitago jokoan.

10. jardunaldia

Igandean, Altsasuko Dantzaleku futbol zelaian
10:30ean: Urdiain – Arbizu
11:30ean: Mediolanum – Dantzaleku
11:30ean: Tipi Tapa – Sayas
12:30ean: Lagun Artea – Txartel
12:30ean: Sutegi – Kaixo

Kirolak

Igerilekuetako soroslea izan nahi duzu?

Mank-ek ikastaroa antolatu du, otsailaren 13tik apirilaren 18ra, Altsasun

Bereziki udan ikusten ditugu lanean, gainontzeko guztiak igerilekuetan plisti-plasta gabiltzanean. Igerilekuko sorosleez ari gara. Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak atzera ere igerilekuetako sorosle ikastaroa antolatu du, sorosleak trebatzeko.

Ikastaroa otsailaren 13an hasi eta apirilaren 18an despedituko da. Klaseak Altsasuko igerilekuetan emanen dituzte Ilargi taldeko monitoreek, ostiral arratsaldetan eta larunbat goizetan (60 ordu). Ikastaro honetan ere DESA ikastaroa jasotzen da, desfibriladore semiautomatikoa erabiltzen ikasteko ikastaroa. Ikastaroa egiten dutenek lanbide honetan aritzeko aukera emanen dien diploma jasoko dute eta Mank-en lan poltsan sartuko dira.

IZENA EMATEKO

Sakanako Mankomunitatera jo (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.com). Izena emateko gutxienez 16 urte izan behar dira. Prezioa 430 eurokoa da, baina ikastaroa osatzen dutenek diru-laguntzak jasoko dituzte.

Ipar eskia

Igandean Urbasara eskiatzera!

Mank-ek Otxaportilloko pistatik Bardoitzarantz ipar eski ibilaldia antolatu du, igandean. Autobusa egonen da

Elurra egin duela eta hurrengo egunotan elurra mantenduko dela jakitun, Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak, Arbizuko Udalaren eta Urbasa-Andia Ipar Eski Lagunak taldearen laguntzarekin ipar eski ibilaldia antolatu du iganderako. Asmoa Otxaportilloko pistatik Bardoitzarantz 3 ordu inguruko ibilbidea egitea da.

Izena emateko

Eskiatzaileak Urbasara eramateko autobusa antolatu du Mank-ek. Autobusa Arbizutik abiatuko da, 9:00etan. Ipar eski ibilaldian parte hartzeko 16 euro ordaindu behar dira. Izena ematea ilbeltzaren 24ra arte egin daiteke, Mank-en (948 464 866 edo kirolak@sakana-mank.com) edo bestela, igandean bertan 9:00etan Arbizuko udalean agertzearekin nahikoa da. Ez da ibilaldi lehiakorra izanen, helburua guztien artean ongi pasatzea baita. Bestalde, antolakuntzak asegurua egingo die partaideei.

Urbasa Andia Ipar Ski Lagunak taldekoak pista prestatzeko lanetan. ARZELUS.

Txakurrik gabe

Antolakuntzak nabarmendu du ezin dela ibilbidera txakurrik eraman, ibilbidea txakurrendako gehiegizkoa delako.

Urbasa Andia Ipar Ski Lagunak

Altsasuko Mendigoizaleak taldekoak dira eta elurra egiten duenean Urbasako pistak eskian ibiltzeko prestatzen dituzte. Informazio geihagorako: http://www.altsasukomendigoizaleak.com/noticias.asp?IdNoticia=56

Pilota

Etorkizuneko pilotariak

Sakanako Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren larunbatean Lakuntzan eta Arbizun. Joseba Ezkurdiak banatu zizkien sariak

Adin guztietako 100 pilotari baino gehiago lehiatu dira 27. Sakanako Pilota Txapelketan, ondoko klubetakoak: Olaztiko Sutegi, Altsasuko Pilotajauku, Etxarri Aranazko Gure Pilota, Arbizuko Aldabide eta Lakuntzako kluba. Txapelketarekin non lehiatu eskaini zaie batez ere txikienei.

Larunbatean finalak jokatu ziren Arbizun eta Lakuntzan. San Saastin festetan murgilduta zegoen Lakuntza eta bertan egin zen sari ematea, frontoia betea zela.

Finalen ondoren talde argazkia atera zuten Ezkurdiarekin. UTZITAKOA

"Finaletan giro bikaina izan da, partidak oso onak izan dira eta emozio askokoak" adierazi digu Lakuntzako klubeko arduradun Ander Lopetegik. Sakanan pilotak etorkizuna baduela ikusi zen, eta etorkizuneko pilotari hauei egun pilotari handia den Joseba Ezkurdia pilotari handiak jantzi zizkien txapelak.

Sakanako Pilota Txapelketako finalak:

Txikiak: Egoi-Aitor (Sutegi) **18** / Bakaikoa-Zabala (Lakuntza) **4**
Umeak 2: Senar-Cocera (Lakuntza) **18** / Eneko-Aitor (Sutegi) **13**
Umeak 1: Unax-Iker (Gure-Pilota) **18** / Imaz-Lakuntza (Aldabide) **17**
Kimuak 2: Arraiza-Ondarra (Lakuntza) **18** / Altzelai-Palomares (Gure-Pilota) **16**
Kimuak 1: Gabirondo-Imaz (Pilotajauku) **18** / Imaz-Gorrotxategi (Aldabide) **9**
Haurrak 2: Barranco-Inhar (Gure-Pilota) **18** / Lopez de Zubiria-Senar (Gure-Pilota) **6**
Haurrak 1: Jaka -Gamboa (Gure-Pilota) **18** / Mentxaka-Gonzalez (Sutegi) **3**
Kadetak: Olaetxea-Goikoetxea (Aldabide) **18** / Petriati-Galarza (Aldabide) **9**
Gazteak (lau t´erdian): Grados (Pilotajauku) **22** / Arbizu (Pilotajauku) **19**
Nagusiak: Arruti-Agirre (Aldabide) **22** / Jokin-Julen (Sutegi) **14**

Zabaleta eta Ezkurdia, geroz eta liderrago

Sailkapena

1.	Ezkurdia-Zabaleta	5 puntu
2.	Artola-Albisu	3 puntu
3.	Oinatz-Aretxabaleta	3 puntu
4.	Berasaluze II-Zubieta	3 puntu
5.	Retegi Bi-Rezusta	2 puntu
6.	Irujo-Barriola	2 puntu
7.	Xala-Merino II	1 puntu
8.	Olaizola II-Beroiz	1 puntu

Retegi Bi-Cecilio 12 tantotan utzi zituzten. Zubietak eta Berasaluzek ere irabazi zuten, 22-17, Altuna III.ari eta Merinori

Komunikabideetan behin eta berriz aipatzen da kontua: duela urte bat nork esango lieke Ezkurdiari eta Zabaletari Binakakoaren buruan egongo zirela? Aurreko urteko txapelketan biko sakandarrak 6 jardunaldi eman zituen garaipena lortu gabe. Aldiz, aurten jokatutako bost partidetatik bostak irabazi dituzte eta sailkapenean lider dira, 5 punturekin, arerioei 2 puntu aterata. Ezkurdiak berak esaten zuen, gakoa ondokoa dela, "bikoa egiten ari direla". Eta nola, gainera.

Retegi Bi eta Rezusta ordezkatzen zuen Cecilio Valgañan izan zituzten aurkari atzo sakandarrek Tolosako Beotibarren. Retegi Bi eta Cecilio aurreratu ziren, baina hasietarik sendo eta bikain kantxaratu ziren gureak eta berehala erantzun zieten. Atzeko koadroetan Zabaletak izugarri jo zuen, ohi duen moduan, eta Ezkurdiak ere gustura mugitu zuen pilota aurreko koadroetan. Bere errematemaltzurrak ezin erantzun ibili zen Retegi Bi. Azkenean, garaipen erosoa lortu zuten, 12-22.

Zabaleta: "partidaz partida goaz"

Ezkurdia-Zabaletak eta Bengoetxea VI-Aretxabaletak asteazkenean egin zuten material aukeraketa. Oinatzen iritziz sakandarrek hautatutako pilotak biziegiak ziren. "Guk hautatutakoak gustuko ditugu, baina beldur naiz eurenak azkarregiak izango ote diren. Kontuan hartuta Zabaleta eta Ezkurdia egun dauden jotzaile handienak direla, kezkatzen nauen zerbait da" adierazi zuen leitzarrak. Aldiz, pilotekin konforme azaldu ziren sakandarrak. "Materiala ona da, akaso besteena baino baxuagoa baina dena ongi" azaldu zuen Zabaletak. Faborito direla galdetuta eurek ez diotela taulari begiratzen erantzun zuen etxarrendarrak. "Liderrak garela eta ez dugula partidarik galdu kontziente gara, baina guk gurera jarraitu behar dugu. Lehenbailean 8 edo 9 garaipen lortu behar ditugu, finalerdietarako ligaxkara sailkatzeko eta beste guztiari ez diogu garrantzirik ematen. Partidaz partida goaz, partida bakoitza final bat bailitzan, gure helburua lortzeko" nabarmendu zuen. Oinatz eta Aretxabaletaren kontrako partida "konplikatua" izango dela aurreikusten du. "Oinatz Joseba nahasten saiatuko da eta guk hori saihestu behar dugu eta gure jokoa egin: partida atzean gogortzea eta Josebak ahal dituen aukerak aprobetxatzea" gaineratu zuen. Bestalde, Oinatzek hitz ederrak izan zituen sakandarrendako. "Historian atzelari gutxik jokatu duten mailan jokatzen ari da Zabaleta. Ia garaitu ezinak daude, baina egunen batean ez dute horren ongi jokatuko eta espero dezagun egun hori larunbata izatea, guk irabazi ahal izateko" aipatu zuen Oinatzek. Ezkurdiak, bere aldetik "ezin direla konfiatu" gehitu zuen.

Zubietak eta Berasaluzek 3 puntu dituzte

Aitor Zubietak eta Pablo Berasaluzek 22-17 irabazi zieten Altuna III.ari eta Migel Merinori, ederki sufrituta. Hasieran bikain aritu ziren Zubieta eta Berasaluze eta 9-1 aurreratu ziren markagailuan, baina errenta hori alperrik galtzen utzi zuten eta partida irabaztea izugarri kosta zitzaien.

Berasaluzek sekulako maila emanez hasi zuen partida. Atzean Zubietak agintzen zuela probestuz, tanto ikusgarriak egin zituen bizkaitarrak, eta 9-1 aurreratu ziren. Baina Berasaluzek behera egin zuen, akatsak pilatzen hasi zen eta arerioek egoera bikain aprobetxatu zuten Altunak eta Merinok, egoerari buelta eman eta 13-15 aurreratzeko. Orduan Berasaluzek eta Zubietak egoerari buelta ematen jakin zuten, Zubietak bereziki. Eta, sufrituta, 22-17 irabazi zuten. Jokatutako 5 partidetatik 3 irabazi dituzte Zubietak eta Berasaluzek.

Etxarriarrak eta bizkaitarrak igandean Artola eta Albisu izanen dituzte aurkari Eibarren. Material aukeraketa atzo arratsaldean egin zuten.

Binakakoa. 6. jardunaldia

Irujo-Barriola / Retegi Bi-Rezusta (ostiralean, 20:30ean, Hendaian. ETB1)

Olaizola II-Beroiz / Xala-Merino I (larunbatean, 17:30ean, Logroñon)

Oinatz-Aretxabaleta / Ezkurdia-Zabaleta (larunbatean, 17:30ean, Labriten)

Berasaluze II-Zubieta / Artola-Albisu (igandean, 17:00etan, Eibarren. ETB1)

kultura >>

Nanoipun lehiaketa abian, euskara ikasten eta praktikatzen dutenentzat

Euskaltegietako ikasle zein mintzakideentzat bereziki antolatutako ekimena da

Maialen Huarte Arano

Euskalduntzen ari den eta Mintzakide programan parte hartzen duen Sakanako edozein bizilagunek har dezake parte Nanoipuin lehiaketan. Testu laburrak prestatu beharko dituzte parte hartzaileek, gehienez 150 hitzetakoak. Banakako lanak aurkeztu beharko dira lehiaketara eta pertsona bakoitzak nahi adina testu idatz ditzake. Gaia edozein izan daiteke, baina betiere Sakanari buruzko erreferentzia bat agertu beharko da; tokiak, gertakari historikoak ... Euskara hutsean idatzitako lanak bakarrik hartuko dira kontuan eta lehenago argitaratu gabeak behar dute izan. Martxoaren 31ra arte aurkez daitezke testuak Itsasi euskaltegian zein Sakanako Mankomunitatean.

Hiru maila bereziko dira Nanoipuin lehiaketan. Alde batetik B1 maila arteko ikasleek har dezakete parte, bestetik B2 maila artekoek eta azkenik C1 maila arteko ikasleek. Lehiaketak aurrera egiteko gutxienez 10 lan jaso beharko dira, bestela bertan behera geratuko litzateke. Aurrera eginez gero, maila bakoitzeko saridun bat izanen da eta bakoitzak liburu sorta eskuratuko du. Lanak Sakanako Mankomunitatearen esku geldituko dira.

Lanak aurkezteko arauak

Nanoipuin bakoitzaren bi kopia aurkeztu beharko ditu parte hartzaileak, gutun-azal itxian sartuta eta izengoiti batez sinatuta. Egilearen datuak gutun-azal handiaren barruan agertu beharko dira beste gutun-azal batean gordeta. Sakanako Mankomunitatean edo Itsasi euskaltegian aurkezteaz gainera, posta elektronikoz bidaltzeko aukera ere bada euskara@sakanamank.com helbidera; pdf formatuan eta egilearen datuak beste dokumentu batean atxikirik.

Gazte, zer da hankaz gora?

#hankazgora! Instagram bidezko gazteendako argazki lehiaketa antolatu dute Euskaltzaleen Topaguneak eta Fundación Caja Navarrak

Nafarroako 12 eta 18 urte arteko gazteei zuzendutako lehiaketa da #hankazgora!, euskara esperientzia positiboekin lotu eta gazteen artean sormena bultzatzeko helburua duena. Parte-hartzaileek, bakarka edo taldeka, #hankazgora leloarekin bat datozen argazkiak aurkeztu beharko dituzte lehiaketara. Argazki bakoitzak euskarazko izenburu bat izan beharko du.

Lehiaketan interesa dutenek lehiaketaren oinarriak telefonoan deskargatu eta onartu beharko ditu. Sariketan sartzeko, parte-hartzaileek argazki guztiak #hankazgora! traolarekin etiketatu beharko ditu eta Instagramera igo(sare sozialaren baldintzak onartu beharko dira). Nahi beste argazki aurkeztu daitezke lehiaketara, epea martxoaren 15ean despedituko da. Bi sari izanen dira: argazki onena eta argazki bozkatuena. Irabazle bakoitzak berak aukeratutako merkatal gune batean erabili ahal izateko 500 euroko bono bana jasoko du sari gisa.

Sakanako ikastetxeetan bertsolaritza sustatzeko aukera izanen da

Sakanako Mankomunitateak eta Nafarroako Bertsozale Elkarteak akordioa erdietsi dute ikastetxeetan bertsolaritza sustatzeko

Maialen Huarte Arano

Bat-batekotasuna, bertsopaperak, bertsoen sailkapena, errimak, neurriak, doinuak eta lehengo eta oraingo bertsolarien ezagutza izanen dute Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleek. Bertsolaritza sustatzeko asmoarekin, Sakanako ikastetxe guztietan -publikoak, itunduak eta ikastolak- D, B eta A ereduko ikasleei Bertsolaritzako 15 orduko modulu bat emateko aukera eskainiko die Bertsozale Elkarteak. Adostasun horretara iritsi da Nafarroako Bertsozale Elkartea Sakanako Mankomunitatearekin. Horibai, urtean gehienez 15 taldetan eskaini ahal izanen da modulua.

Gu ere bertsotan izeneko materiala erabiliko dute Nafarroako Bertsozale Elkarteak bideratuko dituen irakasleek. Gainera, jarduera osagarriak ere prestatzeko aukera izanen dute: bertso eskola sortu ahal izanen dute Sakanako herriren batean eta modu horretan Lehen Hezkuntzako 6. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan dauden ikasleek hartu ahal izanen dute parte. Bertso eskola sortzeko 6 haur edo gaztek eman beharko dute izena.

bazterretik

Andoni Igoa

Fernando Redon

Unibertsitatean nengoela gure eskolak ostegunero hitzaldi batzuk antolatzen zituen. Bertara izena zuten arkitektoak etortzen ziren beraien obra eta proiektuak erakustera.

Behin batez, Fernando Redon izeneko arkitekto nafar ospetsua etorri behar zela eta, bere hitzaldia ikustea aukeratu nuen gelako ikasgaira joan ordez. Egia esan, nik honen izena ez nuen sekula entzun. Eskolako areto nagusira joan eta bertan ikusi nuen agure atsegin bat irakasleei txantxak egiten. Hitzaldia hasi orduko pertsonaia hura fenomeno bat zela ohartu nintzen, arkitekto bikaina izateaz gain, margolari trebea.

Berak egindako obrak erakusten hasi zen eta bertan, Ultzamako golf kluba ikus zitekeen, Ubarmin klinika, Iruñeako hainbat etxebizitzen eraikinak, Huarte etxea eta huntzen etxea esaterako, Zuastiko zerbitzu area... Sevillako Expoan Nafarroako pabilioia diseinatu zuen. Hemen egituraren zutabe nagusiak Nafarroako benetazko arbolak ziren, eraikinaren atariari Nafarroako basoen itxura emanez.

Baina gehien arreta deitu zidana, arkitekto honek Sakanan ere bere aztarna utzi zuela izan zen. A ze ustekabea eraman nuen Olaztiko Clinkerraren planuak erakutsi zituenean. Egia esan, Clinkerra betidanik eraikin berezia iruditu zait, baina ez nuen pensa Nafarroako arkitektura modernoan horrelako eragina zuenik. Clinkerra 1963. urtekoa da eta oraindik arkitektura modernoa sentitu daiteke bertan.

Olaztin egindako beste obra garrantzitsu bat erakutsi zuen, "Cementos Portland"-eko kontrol eraikina. Hau ere 60. hamarkadan egina da eta arkitektura aldetik oso eraikin interesgarria dela esango nuke.

Redonek hitzaldi hartan esan zuen esaldi batekin bukatuko dut. "Arkitektura onak dena jasaten du". Hau da, ongi diseinatutako arkitektura ondorengo edozein moldaketa izanda ere, arkitektura ona izaten jarraituko du.

Urteurrenerako, musika latinoa

Sacalfi eta Trasteando, larunbatean, 20:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean

Trasteando musika taldeak aurten 10 urte betetzen dituela eta, zenbait ekitaldi berezi antolatu nahi ditu efemeridea ospatzeko. Hobekien dakitena eginez ospatu nahi dute hamarkada, musikarekin. Biharko Iruñeko Sacalfi taldea gonbidatu dute. Sakandarrak anfitrioi onen moduan, sarrera gisa kantu batzuk eskainiko dituzte, bisitarien kontzertuari txanda emateko.

Hainbat taldetan aritutako musikariek osatu zuten 2005ean Sacalfi taldea. Boleroek eta musika latinoak batu zituen. Urtetan landutako errepertorio pertsonala dute, erritmo kutsakorrez, armonia aski ikasiez eta berezko izaera duten melodiez osatuta. Biharko emanaldian haien Hego Amerikako eta hispaniar errepertorio zabalaren erakustaldia eginen dute. Kontzertua bi taldeek elkarrekin eskainitako kantuekin despedituko da.

Fantasiazko komedia magikoa

Larunbatean, 20:00etan Olatzagutiko kultur etxean

Pedro III.a ilusionistak *Cruzando el espejo* komedia magikoa aurkeztuko du bihar Olatzagutian. Pedro III.k, zeremoniako maisu-lana eginez eta Lewis Carrollen *Aliceren abenturak Lurralde Miresgarrian* lanean bezalaxe, ikuslea "laugarren pareta" den ispiluan barrena eramanen du fantasiazko mundu bat ezagut dezan. Adin guztiendako sorpresaz eta dibertsio handiz betetako ikuskizuna izanen da. Agian Untxi Zuri handia ikusiko dugu agertokian, edo Alice, Sonbrailugilea edo Bihotzetako Erregina bera ere…

Ilusionismoaren arte zaharra kalitatez eta orijinaltasunez garatzeko bidea jorratu du Pedro III.k, ikuskizunak eskaintzeko formatu berrien bila, eta eskainiko duen lana horren emaitza da. Eszenografiak, pertsonaiek eta istorioak berak benetako antzezlan bat eratzen dute, poesiaz eta misterioz betea; horretan, noski, magia-efektu orijinalenak ez dira faltako. Ikusleak proposatutako gatazkekin gozatzeko aukera izanen du; efektu bisualekin harrituko da; bizitakoen ondoren euren zentzumenez zalantza izanen du… Azken batean, liluraren bidez ispiluaren beste aldean dagoena erakutsiko du Pedro III.k.

Hausnarketak linbotik

Igandean, 19:00etan, Irurtzungo kultur etxean

Hiru emakume eszenatokian. Evita Peron, Eva Braun eta Joana ama santua. Hirurak ere 33 urterekin hil ziren. Hirurak garrantzi handiko emakumeak izan ziren, zein bere garaian. Linboan –bizidunen eta hildakoen arteko mundu ukatuan– elkar ezagutu dute. Topaketak eztabaidarako, irri egiteko eta hausnartzeko balioko die. Esaterako, han gogoratuko dute bizitzea ez zela hain txarra eta hiltzea ez dela amestea.

Hiru emakume horiek dira Producciones Maestrasen *Tres árboles de piedra*. Ez da ez historia, ez dokumental ez eta lan serio bat. Umore lotsagabe eta azidoko pieza batekin topo eginen du ikusleak, irakaspenik gabeko oroimenezko irakasgaia, baita bizitzari egindako deiadar nahigabetu bat ere. Komedia, drama eta bizirik irautea dira inor epel utziko ez duen proposamen hori egituratzen duten ardatzak. Linboan denbora gehien daramatenak ohituak daude "esnatzera", horregatik, berriaren irakasle izanen dira.

Euskal literaturara IGO

Hilaren akaberara arte liburuak erosteko deskontuak lortu daitezke

Euskarazko liburuen irakurketa sustatu asmoz, Etxarrin euskaraz Irakurri, Gozatu eta Oparitu (IGO) kanpaina martxan da hirugarren urtez. Alde batetik, euskaraz irakurriko duten irakurle gazte eta heldu berriak erakarri nahi ditu kanpainak eta, bestetik, ohiko irakurle euskalduna saritu.

IGO kanpainan parte hartzeko egin behar den aurreneko gauza Etxarri Aranazko Victoriano Huizi udal liburutegitik pasa eta aukeratutako euskarazko liburua maileguan hartzea da. Hura irakurri ondoren liburutegian emandako fitxa bete beharko da. Trukean liburuzainak deskontu txartela emanen dio irakurleari. Hark Etxarriko liburu-dendetan liburua erosteko balio du. %25eko deskontu txartelak banatuko dira. Baina euskara ikasleek eta Mintzakide programako kideen deskontua %50ekoa izanen da eta Etxarriko irakurketa taldekoen deskontua, berriz, %40koa.

Irakurle taldeen hitzorduak

Heldu den ostegunean Etxarrin eta ostiralean Olatzagutian

Etxarri Aranazko irakurle taldearen hurrengo hitzordua ostegunean izanen da, ohi bezala, 19:00etan, liburutegian. Gemak Katayama Kyoichi idazlearen *Maitasunaren oihua* liburuaren aurkezpena eginen du eta gero taldekideek irakurketak sortutako inpresioak azalduko dituzte.

Olatzagutiko irakurle taldea, berriz, heldu den ostiralean elkartuko da. Julio Lllamazaresen *La lluvia amarilla* liburua izanen dute hizketagai. Hitzordua, 21:00etan dute, liburutegian.

Errepikatzeko moduko trikiti jaialdia

Nafarroako Trikiti Elkarteko kideek larunbateko Altsasuko jaialdia eta gero, zorion deiak jaso dituzte telefonoz. Antolakuntzan buru-belarri ibili den Patxi Agirrek esan digunez, "primeran, ezin hobeto atera zen. Jendea gustura gelditu zen". Jaialdian parte hartutako trikitilariek emandako "maila izugarria" nabarmendu digu Agirrek: "pieza ezagunen moldaketa berriak, jaialdirako propio sortutakoak… zaila izanen da hurrengoetan mailari eustea".

Izan ere, elkartean ez dute gaizki ikusi San Anton egunaren bueltan trikiti jaialdi bat antolatzea (Azpeitian San Jose egunean eta lastailaren 15aren bueltan Oñatin). Tokia zein izanen den erabakitzeko dute oraindik, nahiz eta Altsasun gelditzeko eskaera dagoeneko egina dieten. Nafarroako Trikiti Jaialdiaren jarraipena bera, instrumentuak gure herrialdean egin duen beste mugarri bat izanen da, aurkezpenean elkarteko kide Martxel Ansak nabarmendu zuenez.

Nonerabili

TIPI TAPA OINETAKOAK
ALTSASU
60 €ko erosketagatik %10eko deskontua (eskaintza ez metagarria).

VIZU ILEAPAINDEGIA
ITURMENDI
30€ko gastuarekin, %10eko deskontua.

ALDASORO HARATEGIA
ALTSASU
30€ko erosketa batengatik etxeko produktua opari.

ALFA INMOBILIARIA
ALTSASU
Etxe edo pisu baten erosketagatik 100 €ko txekea opari.

KIXKUR ESTETIKA ZENTROA
ZIORDIA
30 €ko gastuarekin %20eko deskontua produktuetan.

IORTIA HORTZ KLINIKA
ALTSASU
%10 aho garbiketetan eta hortz ateratzeetan. Azterketa doan.

JULENE KORTSETEGI ETA LENTZERIA
ALTSASU
%5eko deskontua 50 €tik gorako erosketetan.

JON CORDON TAXIA
IRURTZUN
%10eko deskontua.

JAVIER AIZPUN HARATEGIA
UHARTE ARAKIL
50 €ko erosketetan, etxeko produktua doan.

UHARTE GAZTA
UHARTE ARAKIL
40 €ko gastuarekin, etxeko produktua doan.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai

Gasteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 70%	euria: 58%	euria: 48%	euria: 30%	euria: 90%	euria: 87%	euria: 91%
Min: 1 Max: 4	Min: 0 Max: 6	Min: 1 Max: 4	Min: 0 Max: 5	Min: 2 Max: 6	Min: 2 Max: 6	Min: 3 Max: 7

: tenperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	11	-1	50.3
Etxarri A.	9.9	-2	50.9
Altsasu	10.5	-1	54.5
Aralar	3.5	-4.5	16.2
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia>>

ilgora	ilbete	ilbehera	ilberri
27	4	12	19

Ilbeltzeko bazkide zozketa

ILBELTZEKO SARIAK:

1. Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta liburu lotea.
2. Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak Artazako kanpinerako deskontu balea eta liburu lotea.
3. Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak Artazako kanpinerako deskontu balea eta liburu lotea.
4. Lacturale lotea, Magna Xotarako sarrerak Artazako kanpinerako deskontu balea eta liburu lotea.

>>11 galdera

Maitane Ezkurdia

Fisioterapia uroginekologoan aditua

Testua: Maialen Huarte Arano

1. Non egin dituzu fisioterapia ikasketak?
Soriako unibertsitatean ikasi nuen fisioterapia baina bestelako espezialitateak ere eginak ditut. Bartzelonan eta Madrilen ikasi ditut uroginekologia, andrologian, ostrotizia eta potrotizia.

2. Uroginekologia aipatu duzu; zertan datza?
Fisioterapia uroginekologikoa zoru pelbikoarekin erlazionatutako arazoak lantzean datza. Prebentzioa eta tratamendu terapeutikoa egitea da bereziki.

3. Zein arazo lantzen duzu?
Emakumeen arazo ohikona gernu isuria da. Prolaxoa, disfunzio sexualak, uteroko ebakuntzaren mina eta bajinismoa. Gizonezkoen kasuan, prostatako ebakuntzekin erlazionatutako arazoak izaten dira, inkontinentzia eta inpotentzia barne. Ostrotizian bestetik, haurdunaldiarekin, erditzearekin eta erditze ondoren sortu daitezkeen arazoekin egiten dut lan. Erditu ondoren perinea, abdomena eta postura ongi landu behar dira, emakumeak erditze aurretik zuen gorputza berreskuratu ahal izateko. Proktologian idorreria, anismoa, gasen inkontinentzia... lantzen ditugu.

4. Emakumeen eta gizonen arazoak izaten dituzue, hortaz?
Bai. Emakumeen artean 18 eta 55 urte bitartekoen artean, hirutik batek izaten du gernu isuria. Inkontinentzia hori esfortzu bat egiten denean gertatzen da batez ere: korrika egitean, dominstiku egitean... Tamalez, arazo horri ez zaio beharko lukeen irtenbide goiztiarrik ematen. Izan ere, emakume askoren arazo izateak ez du esan nahi normala denik. Gizonezkoetan ohikoenak prostatarekin loturiko arazoak izaten dira.

5. Gernu isuria zergatik gertatzen da?
Arazo horiek zoru pelbikoaren ahultzearekin loturik daude. Pelbiseko muskuluek behar duten sendotasuna eta indarra galtzen dute. Horren ondorioz, muskuluak gainerako organoak euren tokian mantendu beharrean, mugiarazi eta behera jaustea eragiten du. Hala nola, uteroa, maskuria eta ondestea. Erorketa horrek gernu isuriak eragin ditzake.

6. Zerk eragiten du zoru pelbikoaren ahultzea?
Zoru pelbikoa faktore batek baino gehiagok eragin dezake. Alde batetik, eragin handiena duena haurdunaldia da. Haurraren pisuak zoru pelbikoa tentsioan izatea eragiten du. Erditzean gainera, urradurak eta bultzatu beharrak sor dezake ahultzea. Baina inpaktuzko kirolak ere ahultzen ahal du: korrika egitea, saltoka aritzea, aerobika... ariketa horiek mekanikoki zoru pelbikoan kolpe jarraiak sortzen dituzte eta azkarrago galtzen da ehunen kalitatea. Horretaz gain, zonaldeko presioa handitzen duten mugimenduek ere eragin dezakete: abdominalek, idorreriak, eztul kronikoak, asmak ... Adinarekin, menopausiarekin ... ehuna galtzen du emakumeak.

7. Badu irtenbiderik arazo horrek?
Soluzioa badauka. Lehenbizi egiten dena da, pazientea esploratu eta arazoa identifikatu. Kasuen %80ean birgaitu daiteke. Tratamendua planteatu eta teknika eta ariketak planteatzen dizkiegu.

8. Zein teknika lantzen duzue?
Fisioterapiarekin muskuluen indarra lantzen da. Modu horretan organoen estatika eta funtzioa hobetzen dira. Terapia manualak, elektroestimulazioa, bio-feeback, tejido konektiboaren erregenerazioa sortzeko ariketak, lan posturala, gimnasia adbominal hiporesiboa...

9. Haurdunaldian ere lantzen dituzue teknikak?
Amatasuna prestatzen da: haurdunaldia, erditzea eta erditze ondorengoa. Pelbiseko mugimenduak, masaje perineala, epineoa... egiten ditugu.

10. Nolako sesioak izaten dira?
Zonalde intimoez ari gara eta bakarka egiten dira gehienak, dena dela, haurdunaldien kasuan talde txikietan ere egiten ditut. Bikotekidearekin edo erditzean lagunduko dionarekin etortzen dira batzuk, eurek ere lan handia egin dezaketelako une horretan.

11. Non egiten duzu lan?
Alde batetik Bilbon aritzen naiz Sara Esparzaren taldean. Kontsultak Altsasun (608 954 648) eta Iruñean pasatzen ditut.